

Txokolate > txokólte; garizuma > garízma; larunbata > larúnta; serbiletta > serbíltta; errezeloá > errézlua; bederatzi > bedétzi; ortziralá > ortzíla; oinetakoak > óintukuk; kamiseta > kamístta; liburu > libru; gaztanbera > gatzámbrá; diferente > difénte; diferentzia > diféntzia; gehiago > géigo; holaxe > óltxe(n); halaxe > áltxe(n); ...

BORTZIRIETAKO HIZKERA

Argitaratzailea:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Ikerketaren egilea: **Patxi Iñigo Ariztegi**

Argitalpen honen egilea: **Patri Arburua Etxeberria**

Zuzentzailea: **J. Emilio Txoperena Zugarramurdi**

Lehen argitaraldia: 2020ko ilbeltza

Diseinua eta maketazioa:

Kulturkari | Ttipi-Ttapa



1. SARRERA

Aditua eta irakurria dugu Bortzirietako hizkera aski gutxi ikertua izan dela. Gure hizkeraren gainean argitaratutako lanak ere ez dira sobera izan. Aipatzekoa da Edu Zelaieta Antaren **tesia**, eta han-hemenka gaiaren inguruan argitaratu izan diren hainbat artikulu, lan honen **bibliografiaren** atalean biltzen ahalegindu garenak.

Guk, ordea, bagenekien bertako herritar bat, **Patxi Iñigo Ariztegi**, urtetan aritu zela bertako herritarren testigantzak biltzen eta bertako hizkera aztertzen. Iñigok berak lan horren atal edota gai batzuk argitaratu izan dituenbait artikuluren bidez, baina lana bere osotasunean argitaratu gabe zeukan.

Duela bizpahiru urte Iñigok eskura jarri zigun egina zuen lana, eta, hori aztertu ondotik, argitaratzea proposatu genion, egina zuen lan mardula herritarren eskura egoteko modukoa zela uste baikenuen. Egilea ados egonik, argitalpen hau prestatzeari ekin genion.

Halere, hasieratik erran behar da osatu gabeko lana dela. Hau da, Iñigok Bortzirietako hizkeraren eskema eta ezaugarri nagusiak eskaintzen dizkigu, eta horiek hornitzeko hainbat adibide, bertako lekukoengandik bildutakoak.

Irakurleok ikusi ahal izanen duzueenez, lanaren atal anitz daude osatzeko. Hain zuzen ere argitalpen irekia dela uler dezazuen eskatzen dizuegu.

Guztion eskura jarri nahi izan dugu, Bortzirietako hizkeraren berri ematen duen oinarri sendo bat delakoan, eta betiere lana osatzeko eta ekarpenak jasotzeko ateak irekita uzten ditugu.

Iruditzen zaigu material hau interesekoa izan daitekeela Bortzirietako hizkeraren ezaugarriak ezagutu nahi dituenarentzat: irakasleak, erraterako gure eskualdera etorri eta bertako hizkeraren berri ez dutenak; ikasleak, espresuki euskara ikasten ari diren helduak; edota ikerlariak, hizkuntzalariak eta dialektologian adituak direnak.

Azken horiek bereziki animatu nahi ditugu Bortzirietako hizkera gehiago ikertzera. Inork ikerketa honetan sakontzeko asmorik izanen balu, lan hau guztia oinarri gisa izateaz gain, mankomunitateak eginak dituen hainbat grabazio ere eskura utziko lizkioke.

Argitalpena formatu digitalean bakarrik prestatu dugu, horixe iruditu baitzaigu dokumentua erraz eskuratu eta irakurtzeko formaturik aipropose-na. Are gehiago, erran dugun bezala, lana osatzeko egonda, formatu digitalak egin daitezkeen ekarpenetarako aukera gehiago eskaintzen dizkigu.

Bertzerik ez, irakurle. Baliagarria izan dakizula begien aitzinean duzun dokumentua.

Bortzirietan, 2020ko ilbeltza

Leire Mitxelena Gamio

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria

1. SARRERA	1	5.3 Albokariak.....	17
2. AURKIBIDEA	2	5.4 Sudurkariak	18
3. BORTZIRIETAKO HIZKERA. KOKAPENA.....	4	5.4.1 Sudurkarien galera	18
4. BOKALISMOA.....	5	5.4.2 Asimilazio eta kontsonante alternantziak.....	18
4.1 Bokal elkarketak	5	5.5 Igurzkariak	19
4.1.1 Bokal itxiturak	5	5.5.1 j/y soinua.....	19
4.1.2 Bokal irekidurak	6	5.5.2 F fonema	19
4.2 Aferesia	6	5.6 Txistukariak	19
4.3 Sinkopa	7	5.7 Sabaikariak	21
4.4 Hiatoa.....	8	5.7.1 Ñ eta LL.....	21
4.5 Hiatoaren murrizketak.....	9	5.7.2 TT eta DD.....	22
4.6 Diptongoak.....	11	6. IZEN MORFOLOGIA	24
4.6.1 Beheranzko diptongoak.....	11	6.1 Deklinabide ezaugarri orokorrak	24
4.6.2 Goranzko diptongoak	13	6.1.1 Mugagabearen erabilera	24
5. KONTSONANTISMOA.....	14	6.1.2 -a mugatzailea gehitzea	24
5.1 Herskariak.....	14	6.1.3 Berezko -a galtzea	24
5.1.1 Hitz hasierakoak	14	6.1.4 Ergatibo singular eta plurala	25
5.1.2 Bokalarteko herskariak	14	6.1.5 Bokal itxitura eta hiatoaren murrizketak.....	25
5.1.3 Ahostunak ahoskabetzea.....	15	6.2 Erakusleak.....	26
5.1.4 Ahoskabeak ahostuntzea.....	16	6.3 Lekuzko aditzondoak	28
5.2 Dardarkariak	16	6.4 Pertsona izenordainak	29
5.2.1 Dardarkari samurra eta gogorra.....	16	6.5 Galdetzaileen bidez osatutako izenordainak eta aditzondoak ..	31
5.2.2 Errotazismoa	17	6.6 Izen arruntak.....	32
5.2.3 Bokal protetikoak	17	6.7 Izen bereziak	40
5.2.4 Bokalarteko r-ren galera	17		

7. ADITZ MORFOLOGIA.....	42	8.2 Mendeko perpausak	63
7.1 Aditzaren ezaugarri orokorrak	42	8.2.1 Baldintzazkoak	63
7.1.1 Aditz nagusiaren aspektua	42	8.2.1.1 Jokatuak.....	63
7.1.2 Ahalera	43	8.2.1.2 Jokatu gabeak	63
7.1.3 Aditz trinkoak	43	8.2.2 Erlatibozkoak	63
7.1.4 Aditz sistemen nahasmena	44	8.2.3 Kausazkoak.....	64
7.2 Aditz laguntzailea	45	8.2.4 Denborazkoak.....	65
7.3 Aditz trinkoak	54	8.2.4.1 Aldi berekoak	65
7.3.1 Egon	54	8.2.4.2 Lehenagokoak	65
7.3.2 Ibili	54	8.2.4.3 Ondorengoak	66
7.3.3 Joan	55	8.2.4.4 Noiztik	66
7.3.4 Jakin	56	8.2.4.5 Noiz arte.....	67
7.3.5 Eduki	57	8.2.4.6 Noizko.....	67
7.4 Aditz atzizkiak	58	8.2.5 Ondoriozkoak	67
7.4.1 -ki.....	58	8.2.6 Helburuzkoak.....	67
7.4.2 -katu/-ketu	59	8.2.7 Kontzesiboak.....	67
7.4.3 -gogo	60	8.2.8 Moduzkoak	68
8. JOSKERA.....	61	8.2.9 Konparaziozkoak	68
8.1 Perpaus koordinatuak.....	61	8.2.9.1 Maila konparazioa	68
8.1.1 Emendiozkoak.....	61	8.2.9.2 Zenbatasunezko konparazioa.....	69
8.1.2 Aurkaritzakoak.....	62	8.2.9.3 Modu konparazioa.....	69
8.1.3 Hautakariak.....	62	8.2.10 Osagarriak	70
8.1.4 Banatzaileak	62	8.2.10.1 Adierazpen osagarriak.....	70
		8.2.10.1 Galde-perpaus osagarriak	70
		9. LEKUKOAK	71
		10. BIBLIOGRAFIA	72

3. BORTZIRIETAKO HIZKERA. KOKAPENA

Koldo Zuazok egindako azken sailkapenaren arabera (www.euskalkiak.eus), Bortzirietako hizkera euskara nafarrean kokatzen da, hain zuzen ipar-sartaldeko azpieuskalkian:

“Nafarroako mendebaleko eskualdeek urrun eduki dute Iruñea eta gertu Gipuzkoako hiriguneak. Gainera, XVIII. mendez gero gehienbat, handia izan da euskara gipuztaren indarra eta, aldiz, Iruñeak, aspaldi erdaldunduta zegoenez, ez zeukan eskualde horiek bereganatzeko gaitasunik. Hori dela eta, Araitz-Betelu, Larraun, Basaburua eta Imotz ibarretan euskara gipuztaren eragina nabari da. Baita Bortzirietan, Malerrekan eta Sakanako mendebalean ere.”

Ipar-sartaldeko azpieuskalkia Bortzirietan, Bertizaranan, Malerrekan eta ibar horien ondoko bertze herri batzuetan (Beintza-Labaien, Saldias eta Goizueta) egiten da.



4. BOKALISMOA

4.1. BOKAL ELKARKETAK

4.1.1. Bokal itxiturak.

Hauek dira bokal elkarketan suertatzen diren gertaerak:

e+a > ia : *seme+a > semia; ate+a > atia esne+a > esnia; lege+a > legia; erle+a > erlia; behatz > biatz; mehar > miar; etxe+hartan > itxi ar(e)tan.*

Barrenian ittia obia da. (Arantza)

Sosa biar baitzen, sosa biar baitzen. (Bera)

Pentsatzen dut geigo re ein biarke dutela. (Igantzi)

Eta dezidittu da egittia ogeita batin. (Igantzi)

Eta zenbaitetan mugagabeen -a mugatzailerik gabe dagoenean ere -i bokala agertzen da, -e agertu beharrean:

Tenori politan ateri ta tortzen giñen. (Arantza)

Uañ biño yendi geigo tortzen tzen. (Arantza)

e+o > io : *tarte+horretan > tarti orretan; etxe+horretan > itxi orretan; behor > bior.*

Ta karga baldin badu beri ortan. (Arantza)

Ori kanpoko aldi oyetatik kar barko. (Arantza)

Ibiltzen tzuten arrastan pionak. (Etxalar)

Eta tarti orretan izandu ziren arazo batzuk. (Igantzi)

Uañ urti otan frontonan, oañ pillota lekun. (Lesaka)

e+e > ie : *igande+hetan > igandi etan; jabe+ena > jabiena; urte+hetan > urti etan; seme+ekin > semiekin.*

e+u > iu : *andre + hura > andri ura; ate + hura > ati ura.*

o+a > ua : *asto+a > astua; besoa+a > besua; ardo+a > ardua; goazen > guazen; ohatze > (g)uatze.*

Gero ollaskua ur berotan sartzen tzu eta... (Arantza)

Au da xetzukua gainku au. (Etxalar)

Eta an auzoku aretan paratu dute. (Lesaka)

o+e > ue : *auzo etan > auzu etan.*

Eta antxe ibiltzen giñen goiko auzu etan barna. (Lesaka)

Lemiziku ek (<haiek) lemeziko aspaldiku ek erratten tzioten bertzikeri...

(Lesaka)

o+o > uo : *asto hori > astu ori.*

Maten du elikopteru oyetikan, lengu oyetikan. (Arantza)

Eta inoizka mugagabeen ere gertatzen da itxitura, -u bokala agertzen baita -o agertu beharrean:

Yuan ta kusten tzu ze dañu dien. (Etxalar)

Aunitz sekretu badu orrek. (Etxalar)

Erran bezala bokal itxitura berak egiten dira bai hitz bukaeran, bai barneko bokalen artean, bai bi hitzen artean ere.

Azkenik aipa dezagun, bertzeak bertze, Baztan eta Basaburua ondoko bi eskualdeetan gertatzen diren **u+a > ue** (*burue*) eta **i + a > ie** (*ardie*) itxiturak ez direla ageri.

4. BOKALISMOA

4.1. BOKAL ELKARKETAK

4.1.2. Bokal irekidurak.

Bortzirietan nekez suertatzen den gertaera da bokal irekidura, eta, denez ere, asimilazio kasuren bat izaten da edo *u > o / -k* kontsonantearen aitzinean, hala nola, *ukondo > okondo; ikusiko duk > kuskok*.

Matsa oañ xetoko dugu ta gero iñen dugu bertze pausua aintziña. (Etxalar)

Edozein gisatara irekidura baino gehiago asimilazio kontua dela ematen du, *-k-* eta *-g-* ingurunean agertzen dena: *haratako > aratoko; holako > oloko; goitiko > gottukua; beheitiko > bettukua; denetako > dentoko, lehenago > lenogo; horretarako > ortoko; aisago > aisogo...*

Bi motor zarrakin iña da ta goma batzuket aratoko aldin. (Arantza)

Ondoko itxen batukua igual yuanen tzen ta... (Arantza)

Bettukua ta gottukua biyek batian yuaten dire. (Bera)

Kanpoko makina ura ote xetzkua da. (Bera)

Gero lenogo itten tzen faboxa. (Bera)

Guk abisatuko dugu kustoko ya zenbateañoko puntua emaiten tzuen.

(Etxalar)

Pixko bat kuriooxogo [gelditu da]. (Etxalar)

Bueno, ortoko iten da berriz asanblean. (Etxalar)

4.2. AFERESIA

Gauza jakina da Bortzirietan indar handia duela aferesiak. Kasurik zabalena aditzaren hasierako *e-* eta *i-* bokalak isiltzea litzateke, hagitz maiz gertatzen baita: *ekarri > karri; eman > man; ezagutu > zautu; etorri > torri; egin > iñ; ikusi > kusi; ikasi > kasi; izan > zan; ibili > billi*.

Bueno torri naiz gustura. (Arantza)

Nik manen dut, ola manen diot. (Bera)

Bertze bazkakin nasteko zatten zen. (Bera)

4.2. AFERESIA

Frantzitik kartzen tzen. (Bera)

Abiazioneko trajikin ta biltzen tzen beti Saran, beti. (Bera)

Emen ez ta kusten grifua ongi. (Etxalar)

Zerbatere pentsatzen dut kar barko dela. (Igantzi)

Alkate bazala benpin ez, ta bertzela kusko ut. (Igantzi)

Gureztat beti ongi zatten da. (Igantzi)

Ta aurten kar dut bat bakarra. (Lesaka)

Guti batzuetan *a-* ere isiltzen da: *aprobetxatu > probextu*.

Egun aunitz dire biño uste dut ongi probextuk izanen direla. (Lesaka)

Aditzez gainera bertze hitzek ere galtzen dute inoizka hasierako bokala: *akordeona > kordiona; etxe > txe; hemen > men; isilik > xilik; ipurdi > purdi; itsusi > tsusi...*

Biar zatten tzen kordionista ta gañera bertsolari bat. (Arantza)

An abetia ta pagua izatten tzen eta purttik bota ta billu pistara. (Arantza)

Hauetz gain, *omen* eta *ote* partikula modalen hasierako *o-* eta *ere* lokailuaren *e-* ere maiztasun handiz galtzen da:

Ondarko, jua te zen? Eztakit batere. (Bera)

Ta ill ura re bueltan kar gunun. (Bera)

Azkenik, ohikoa da aditz laguntzailean gertatzen den aferesia: *ditut > ttut (tut); ditit > ttit (tit); dituzte > ttuzte (tuzte); ditiogu > ttiogu (tiogu); dinat > ñat; dute > te, duzu > zu...*

Urtin iten tu iru prueba or, motobonbak ia ongi tun mangerak ta... (Etxalar)

Itxe aundeya oyetan badie igual pisuk eiñ tuztenak. (Etxalar)

Gañerako telebistak ere ikusten ttugu agitz ongi. (Lesaka)

4. BOKALISMOA

4.3. SINKOPA

Hitz baten barneko bokal edo silaba bat galtzeari deitzen diogu sinkopa. Kasurik gehienetan, aitzineko bokalak eramanen du azentu nagusia.

Beti errankatu da euskara nafarraren hizkera anitzen ezaugarria dela sinkopa, eta garbi dago gurean halaxe dela. Hona hemen guk jasotako hitz saila:

Aditz partizipioak:

abisatu > *abístu*; *kontestatu* > *kontéstu*; *errezatu* > *erréztu*; *esposatu* > *espóstu*; *enterratu* > *entértu*; *esperatu* > *espétu*; *aprobetxatu* > *probéxtu*; *haserretu* > *asértu*; *begiratu* > *begítu*; *ailegatu* > *allétu*; *gurutzatu* > *gurúztu*; *suertatu* > *suértu/subértu*; *berantetsi* > *berántsi*; *merendatu* > *merendu* / *beréndu*; *deskuidatu* > *deskuít(t)u*; *gerizatu* > *giríztu*; *gonbidatu* > *gonbít(t)u*; *kupidatu* > *kupít(t)u*; *seguratu* > *segútu*; *abiatu* > *abítu*; *garraiatu* > *garráitu*; *tiratu* > *títu*; *zikiratu* > *zikítu*; *aitzinatu* > *aintzíndu*; *paratu* > *pátu*; *gibelatu* > *gibéldu* / *gibeltu*; *baliatu* > *balítu*; *adierazi* > *adízi*; *konfesatu* > *konfestu*; *izorratu* > *izórtu*; *deskuidatu* > *deskuít(t)u*; *disfrutatu* > *disfrútu*; *apuntatu* > *apúntu*; *kontrolatu* > *kontróltu*; *presentatu* > *preséntu*...

Argiñanok erraten dun bazala, dena *probexu* in bar da. (Arantza)

Espetu, oyek kentzian irausko. (Bera)

Bai, *probexten* dugu oañ, *probexten* dugu zerbaiteko. (Bera)

Ekengatikan ere *gibeltu* ziren egun batzuk. (Igantzi)

Ez genun *disfrutu* nai den bazala. (Igantzi)

Izenak:

Txokolate > *txokólte*; *garizuma* > *garízma*; *larunbata* > *larúnta*; *serbiletta* > *serbíltta*; *errezeloa* > *errézlua*; *bederatzi* > *bedétzi*; *ortzirala* > *ortzília*; *oinetakoak* > *óintukuk*; *kamiseta* > *kamístta*; *liburu* > *libru*; *gaztanbera* > *gatzámbrta*; *diferente* > *difénte*; *diferentzia* > *diféntzia*; *gehiago* > *géigo*; *holaxe* > *óltxe(n)*; *halaxe* > *áltxe(n)*; ...

Bakotxak matten tzun kafia ta kopa edo *txokóltia* edo gazta ta ogiya. (Arantza)

Fotorrafik ekarzkidaten biño *diféntzia* ateri nun. (Arantza)

Aditz aspektuak, adizkiak eta deklinabidea...:

Ekarriko > *kárko*; *etorriko* > *tórko*; *ikusiko* > *kusko*; *ibilliko* > *ibílko*; *erosiko* > *erósko*; *eroriko* > *erórko*; *ikusi nuen* > *kus nun*; *ikusiko duzu* > *kúsko zu*; *zineten* > *zín ten*; *gorputzetik* > *gorpúztik*; *bizkarretik*; *bizkártik*; *eskolatik* > *eskóltik*; *elizatik* > *elíztik*; *gainetik* > *gáintik*; *kasurik* > *kásik*; *inportarik* > *inpórtik*; *bestarik* > *béstik*; *denetik* > *déntik*; *trenetik* > *tréntik*; *zolatik* > *zóltik*; *gibelek* > *gibéltik*; *zerengatik* > *zéngatik*; *zinetan* > *zín tan*; *gehienetan* > *géintan*; *zaharrena* > *zárna*; *lehengo egunean* > *léngunin*; *deusetarako* > *déustoko* / *yáustoko*; *horretarako* > *órtoko*; *bazterreko* > *baztérko*; *aitzineko* > *antzínko*; *holako* > *ólko*; *zerbaitere* > *zérttere* (Bera); *arratsetan* > *arrástan* ...

Zoltik ateitzen du patata kanpora. (Arantza)

Antzinkuk ee izautu nittun. (Arantza)

Bagiñen *dentako* diña eta txandaka ta aritzen giñen. (Bera)

Bakarkuak izatten tziren, ori *bakarkua* da. (Bera)

Olkuak izatten tziren. (Bera)

Gibelkuak beyak antziñian ta ri-ra, ri-ra, ibiltzen tzuen ori. (Bera)

Ibiltzen tzuten *arrastan* pionak. (Etxalar)

Ordun bai, asi ziren *zintan* lanin. (Igantzi)

Ortoko baitire bestak, gaztik ongi pasatzeko. (Lesaka)

Eskualdean sinkopa anitz egiten bada, dudarik gabe Arantza da kasu gehienetan egiten duen herria. Hona hemen Arantzan egiten dituzten bertze sinkopa batzuk:

baserritarra > *basértarra*; *astelehena* > *astélna*; *itsasotik* > *itsástik*; *fabrikatik* > *fabríktik*; *eskopetakoa* > *eskóptkua*; *bezalako* > *bezálko*; *dagoeneko* > *dagónko*; *hanketan* > *ánktan*; *goizago* > *góizgo*...

Elkarren ondoan dauden bi bokal silaba banatan ahoskatzen ditugunean, bi bokalen elkartzeko horri hiatoa deitzen zaio. Honako hauek dira Bortzirietan azaltzen zaizkigun hiatoak: *ia*, *ie*, *io*, *ua* eta *ue*.

4. BOKALISMOA

4.4. HIATOA

Hona hemen gertaerarik nabarmenenak:

i+a > iya : *zubi+a* → *zubiya*; *ardi+a* → *ardiya*; *haundi+a* → *aundiya*

i+o > iyo : *nobiyo*, *mediyo*, *demoniyo*; *erriyotako*; *esplikaziyo*

i+e > iye : *zortziyetan*; *biyek*; *ardiyen larrua*; *banekiyen*

Sari ura paratuzkero illarra *garbiya* betti [botatzen du]. (Arantza)

Alere difentzi *ttikiya* dute. (Arantza)

Ura emen eltzetzu egondu zen denbora *ttikiyan*. (Bera)

Ta ori garbi-*garbiya* dago. (Bera)

Denak or dire *josiyak* ta gero buelta bat eman diot segitzeko. (Bera)

Lemiziko kategorikuk die itxe *aundeyak* lengo itxe *aundeya* oyek. (Etxalar)

Momentun dugu *argiya*, erriko *argiya* luzatu barra auzo batera. (Igantzi)

Gañera emakumik gizonak bazala *yauntziyak*. (Lesaka)

Eskualdean ematen den <y> epentetikoari buruz garbi dago orain dela ehun edo berrogeita hamar urteko testuetan *i+a*, *i+e* eta *i+o* bokal bilketetan ageri dela, *i* hori tonikoa nahiz atonua denean:

Anacoreten penitenciya espantagarriyaq, eta orañiq munduco mendiyaq ere doblatzen, eta chiquitzen baitire.¹

Lesakako testu honetan ikus dezakegu *penitenciya*, *espantagarriyaq* eta *mendiyaq* <y> epentetikoa hartu dutela. Gaur egun, ordea, bakarrik hirugarrenak hartuko luke Lesakan, Igantzin eta Arantzan. Izan ere, herri hauetan <y> epentetikoa hartzeko *i* delakoak tonikoa behar du izan eta hortaz gaur *penitentzia* eta *espantagarria* erraten dute hitz horietan *i* atonua delako. *Mendiya*, berriz, testuan bezala epentesi eta guzi entzunen dugu. Baina Beran eta Etxalarren oraindik atonoek ere epentesia hartzen dute.

Ta infernuko *demóniyua* etorri zitzayola... (Bera)

Or ttu arri pikatuk itxin *aintzínkaldiyen*; ta gero bertzia emana du berriya. (Bera)

Ori in tzuten orko *mákiyak* eta oyek ez tortzeko. (Bera)

Labrantzako zerak dire, *basériyan* eramateko gauzak. (Bera)

Emen tzen ola pixko bat *agériyan* eta... (Etxalar)

Ori *ikágarreya*, ori *ikágarreya* da. (Etxalar)

Lesakan ere azaltzen da adineko batzuengan:

Gero frontonan in tzen; ez, gero in tzen *ferréteriyen*. (Lesaka)

Ateitzen tzen *arpégiya* tapatua. (Lesaka)

N. Holmer-ek² Arantzan 1954. urtean egindako ikerketan, bertzeak bertze hitz hauek ageri dira, nahiz eta *i* atonua izan, <y> epentetikoa hartzen dutenak: *lámiyak*, *arráilariya*, *alférkeriyan*, *izúgarriya*, *illárgiyan*, *txistúlariya*. Gaur, aldiz, erran bezala, hitz horiek epentesirik gabe ahoskatzen dituzte aranztarrek ez ezik, igantziarrek eta lesakarrek ere. Beratarrek batez ere, oraino epentesiarekin ahoskatzen segitzen dute.

Eta gauza bera gertatzen da *i+o* edo *i+e* bokal elkarketan: *erríyotako*, *olíyo*, *zortziyetan*, *biyek* erranen dute herri horietan guzietan eta gainera *demóniyo*, *esplíkaziyo*, *banékiyen*... Beran eta Etxalarren.

Ana M^a Echaidek³ 1965-1967 urteetan egindako inkestan gaur egungo bereizketa hau ageri da: *ipurdia* (Ar., Les.) / *ipúrdiya* (Bera, Etx.); *illárgia* (Ar., Les.) / *illárgiya* (Bera, Etx.); *elórria* (Ar., Les.) / *elórriya* (Bera, Etx.).

Bertzalde, *u+a*, eta *u+e* bokal elkarketari dagokionez, XIX. mendeko testuetan Lesakan eta Beran gutxienez, *u+a > uba* eta *u+e > ube* ageri dira, hala nola, *neguba*, *eskuba*, *buruba*, *dubena*, *nuben*... Hona hemen Anastasio Echeverrik Lesakan egindako sermoi baten zatitxoa:

1 SATRUSTEGI, Jesús M^a. 1997. "Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatua". *Fontes Linguae Vasconum* 74: 103 or.

2 HOLMER, Nils. M. 1964. *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*. Donostia: ASJU.

3 ECHAIDE, Ana M^a. 1989. *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-1967)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

4. BOKALISMOA

4.4. HIATOA

Espero dut eguiñen duzubela nigar zuben bekatubetaz, eta eguiñen ttuzubela penitenciyaren frutu dignuaq.⁴

Edo Berako ordenantza batzuen agindu hau:

Landetako, eta bertze zarracubac compon dittezela usatzen den bazala zortzi egunen barrenian, bertzela Erregimentubac ongui erazico ttubela yabien costura.⁵

Gaur egun ez da epentesi honen arrastorik ageri aztertzen ari garen herrietako hizkeretan.

4.5. HIATOAREN MURRIZKETAK

Gure eskualdean hiatoaren bigarren bokala anitzetan murriztu egiten da. Murrizketa hau gutienez hiato hauekin gertatzen da:

- a) ***e+a>ia>i***
- b) ***o+a>ua>u***
- c) ***u+a>u***
- d) ***i+a>i***
- e) ***i+e>i***
- f) ***e+e>ie>i***
- g) ***o+e>ue>u***
- h) ***u+e>u***

4.5. HIATOAREN MURRIZKETAK

Zehatzago:

1. ***e+a>ia>i*** murrizketa denborazko perpausetan gertatzen zaigu, hala nola, *duzunean > duzunian > duzunin; hartze+an > artzian > artzin*.

Emendik *pasatzin* leyua jo aratakun ta eldu zielik ez anbertze. (Bera)

2. ***e+a>ia>i, o+a>ua>u*** eta ***u+a>u*** murrizketak hurrenez hurren -e, -o eta -u bokalez bukatzen diren hitzei absolutibo (nor) pluraleko edo ergatibo (nork) singularreko -ak marka eranstea gertatzen dira:

e+ak > -ik: *ume+ak > umik; gazte+ak > gaztik*

o+ak > -uk: *asto+ak > astuk; oilo+ak > oiluk*

u+ak > -uk: *erotu+ak > erotuk; buru+ak > buruk*

Lau *emakumezkuk* eta bi *gizonezkuk* ziren. (Arantza)

la nun tziren *bertzik* galdetu ziaten... (Bera)

Gero asitzen ttugu *kanpeonatuk*. (Igantzi)

Nafarroako *Gobernuk* jarri dun orretan, andik barrena ikusten ttugu agitz ongi. (Lesaka)

o+a>u, adizkietan eta deklinabidean ere gerta daiteke: *banoye > banuye; bazoazi > bazuzi; bagoazi > baguzi*, eta abar. Nahiz eta *nuaye, zuazi, guazi*... egin *ba-* aurrizkia ez daramatenean. Edota *astoa(re)kin > astukin, astoa(re)ntzat > astuntzat; taloa(re)kin > talukin*.

Gero bertze *auzuri* tokatzen tzayo. (Etxalar)

e+a>ia>i, o+a>ua>u eta ***u+a>u*** laburdurei dagokienez gauza bera gertatzen da inesibo (non/noiz) singularrean ere, -e, -o, -u edo *kontsonantez* bukatzen diren hitzei -an marka eranstea: *bide+an >*

4 SATRUSTEGI, Jesús M^a. 1997. "Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatuak". *Fontes Linguae Vasconum* 74: 105.

5 IDOATE, Carlos eta VILLANUEVA, J. Joaquín. 1981. "Unas ordenanzas de Vera en vascuence". *Fontes Linguae Vasconum* 37: 276.

4. BOKALISMOA

4.5. HIATOAREN MURRIZKETAK

bidin; soro+an > sorun; negu+an > negun; bat+ean > batin.

Baserrik egun *batin* ta gero *biamunin* erriyan. (Arantza)

Ta gero iru illauten *burun...* (Etxalar)

Kasu horietatik aparte, **ea>i** murrizketa hitz barnean ere gertatzen ahal da *e* tonikoa denean: *asteartea > astirtia; maneatu > manitu.*

Bai *astizkena*, ortzeguna, ola izatten tzen. (Bera)

Itten genittun igandia, astelena eta *astirtia* eta *astizkena* ere bai... (Lesaka)

Dena dela, 1. eta 2. puntuetako murrizketa hauek ez dira sistematikoki egiten eta ez du ematen araurik dagoenik. Horregatik maiz samar aditzen dira *duzunian, gaztiak, gixajuak, salduak, lanian* eta abar, betiere Etxalarren eta Beran bertze hiru herrietan baino franko gehiago.

Onako emen rueda bat ibiltzen da; espezu... oiek *kentzian* irausko. (Bera)

Iñoizka etortzen dire unat eztakit, denboran *izanduak* agitz.... enpresario *fuertiak izanduak* ta egotten dire *arrittuak* okiri begira. (Bera)

Bueno, *itxekuak* emaiten du lodixiagoa dela. (Etxalar)

Eskola akautu ta gero asi bar du *lanian* ta ordun ezin da besta ein... (Etxalar)

Batzuetan hiztun berak bi formak erabiltzen ditu, bai eta esaldi berean eta hitz berean ere, hurrengo adibidean ikusten ahal den bezala:

Bateri eskapatu zaion *barrenian* zielikan, ostatun *barrenin* zielikan, tirua eskautu zaion. (Bera)

Urtin iten tu iru prueba... Oik die iten dien pruebak *urtian*. (Etxalar)

Baserriz baserri ibiltzen tziren *eskian*; bolada *batin iñautik* egondu ziren franko *akautuak*; denbora *batian* in bar tzuten baserri *guziak*. (Etxalar)

Eta orretan dezidittu da egittia urrengo *igandian*, ogeita *batin*. (Igantzi)

3. **i+a>** kasu honetan Bortzirietan maiz eusten zaio hiatoari:

Pues asi giñen *itzaldiak* o kurtsilluak o zerbatt antolatu nairik. (Lesaka)

Eta eusteaz gain anitzetan <y> epentetikoa ere eransten zaio batez ere *i* tonikoz (Etxalarren eta Beran baita *i* atonoaz ere) bukatzen diren hitzetan:

Bai, motor zar bat artu ta gero *azpiyan* kutxilla bat patzen zayo. (Arantza)

Or arri *azpiyan* egondu zen denborian zortzi egun zazpi eltxaurrekin... (Bera)

Sagar *gazeyakin* iten da bizixio eta gezakin segun... (Etxalar)

Emen tzen ola pixko bat *agériyan* eta ikusten gunugun... (Etxalar)

Au lemiziko *aseya* da milla zortzieun ta lautanogeita batian *aseya*. (Etxalar)

Eta *erriyak* paratu zuen materiala ta ola lortu gunun telebista ere ikustia. (Lesaka)

Azken adibide hauetan ikusten ahal da herri guzietan ez direla modu berean gauzatzen epentesia duten bokal elkarteak. Arantzan, Beran, Igantzin eta Lesakan errate batera *aundiya* entzunen dugu, Etxalarren, berriz *aundeya*.

Murrizketara itzuliz aski normala da batez ere Arantzan, Igantzin eta Lesakan, eta gehiagotan oraindik *i* delakoa atonoa denean:

Basérrik egun *batin* iñen tzuten seguraski eta gero *biamunin* erriyan. (Arantza)

Zazpi lagunen artio bizkarrin *karrik* dire. (Bera)

Guk *lémizin* pentsatu gunun ittia eldu den illautin. (Igantzi)

Ez, ni erriyan bizi naiz, biño lenogo *basérrin*. (Lesaka)

Inesibo singularrean hagitz maiz (baina ez sistematikoki) asimilazioa suertatzen da *i* tonikoa denean: *erri+ an > erriyin; guzi+an > guziyin...*

Erriyin gañera ordun... gure denboran *erriyin* gutti ibiltzen tzen. (Arantza)

Urrengo *aldiyin* berriz yuan men tzen mutill zar ori... (Bera)

Ura zen ilbeltzaren *zazpiyin*, osea joan den urteko ilbeltzaren *zazpiyin*. (Igantzi)

Gosta zitzaigun *lemiziyin*. (Igantzi)

Dire politan politanak, gañera aurten España *guziyin*. (Lesaka)

4. BOKALISMOA

4.5. HIATOAREN MURRIZKETAK

Murrizketa hau hitz barnean ere suertatzen da batzuetan: *abiatu* > *abitu*, *baliatu* > *balitu*; *baina kanbiatu*.

4. *i+e>i* eta *e+e>ie>i* murrizketei dagokienez, ia beti murrizketa gauzatzen da. Honetan ere Bera eta Etxalar dira gutien egiten dutenak:

Gu beti yuaten giñen alik eta kuadrilla *ttikina*. (Arantza)

Gero alik eta *garbiena* inta ere, kusten da nola kentzen dion uañik zikiña. (Etxalar)

Bai, *inportantina* bai. (Lesaka)

Batzuk erratten tzuten ori etzela *emakumin* kontua. (Lesaka)

Honez gainera, *ie>i* maiz gertatzen da erdarazko mailegutan *ie* diptongo duten hitzak laburtzera jotzea, euskaraz hiato bihurtu ondotik: *hacienda>azinda*; *conciencia>kontzintzia*, *paciencia>pazintzia*, eta abar. Bai eta leku izenetan ere: *Zubieta>Zubita*.

Beyari ematteko, *azindari* ematteko untan pikatzen tzen. (Bera)

5. Azkenik, *o+e>ue>u* eta *u+e>u* murrizketak ere ohikoak dira: *pañuelo* > *pañulo*; *cazuela* > *kazula*; *Goizueta* > *Goizuta*:

Yauntzitzen tzen blusakin ta galtza urdiñakin eta *pañulua* ta boneta. (Etxalar)

Deklinabidean eta adjektiboaren gradua markatzeko erabiltzen diren *-egi* edo *-en* atzizkiekin gerta daitezke: *gurasoena* > *gurasuna*; *auzoetara* > *auzutara*; *neguetan* > *negutan*; *beroena* > *beruna*; *estuegia* > *estugia*.

Atetzen tzen *auzutara* ta jeneralin yendia bere *auzutara* ta ola. (Arantza)

Bertakukin ere iduitzen zait bete ere itten al dela. (Igantzi)

Afare eder bat itten dugu *zakukin* eta guk emakume bezala parte artzen dugu. (Lesaka)

Adizkietan ere ohikoak dira adizkiek *-en*, *-enean*, *-la*, *-lako* atzizkiak hartzen dituztenean: *duen* > *dun*; *zuela* > *zula*; *zenuenean* > *ziñunin*:

4.6. DIPTONGOAK

Makilla utzi *nun* eta ondoko egunin in *nun* makilla. (Arantza)

Argiñanok erratten *dun* bazala dena probextu in bar da. (Arantza)

Kontuan hartzekoa da adizkietan batez ere, *oe>ue>u* bilakaera gertatu beharrean *oe>o* bilakatzen dela: *dagoen* > *dagon*; *zegoelako* > *zagolako*.

Dena sasiak artuta *zagon* ta, pixko bat moldatu in dut. (Bera)

Aitzineko puntuetan erran dugun gauza bera errepikatu beharra dago laburdura hauetan ere, hots, ez dela sistematikoki egiten eta Arantzan, Igantzin eta Lesakan Beran eta Etxalarren baino ainitzez gehiagotan suertatzen dela:

Lenogo ez *genituen* ain ongi ikusten. (Lesaka)

4.6. DIPTONGOAK

Elkarren ondoan dauden bi bokalek silaba bakar bat osatzen dutenean, diptongoa dugula erraten dugu. Batzuk berezkoak direla erraten dugu (*hau*, *goiz*, *gai*...) eta bertze batzuk kontsonante baten galeraren ondorioz sortutakoak (*aitsu*, *nausi*, *muittu*...).

Bi motatakoak izaten ahal dira: *beheranzkoak* (bigarren osagaia *i* edo *u* dutenak) eta *goranzkoak* (lehenengo osagaia *i* edo *u* dutenak eta bigarren osagaia *a*, *e*, edo *o*).

4.6.1. Beheranzko diptongoak.

Beti errankatu da euskaraz jatorrizko diptongoak beheranzkoak direla: *au*, *eu*, *ai*, *ei* eta *oi*. Bortzirietan ere hauek ditugu ugarietak: *gauza*, *neune*, *aize*, *sei*, *goiz*.

4. BOKALISMOA

4.6. DIPTONGOAK

AU diptongoa

Hitz anitzetan ageri zaigu: *auts, aur, aurten, gauza, iñaute, belaun, irauli, nau, badaude...* Bai eta bokalarteko kontsonanteren baten galeraren ondorioz sortutakoak ere: *ezagutu > izautu, nagusi > nausi, erakutsi > irautsi...*

Baina murrizketak ere gertatzen dira:

au>a: *aurpegi > arpegi; aulki > alki, auspo > aspo, gaurgero > gargerero, laurogei > larogei, Jaungoiko > Jangoiko...* (Baina *aundi, aunitz...*)

Trapu zar bat berdin da *arpegia* tapatzeko. (Lesaka)

au>u guttitan: *barau > baru.*

au>o: *arrautza > arroltze, hauek > ok.*

au+a> ab+a: *gaua > gaba; kristaua > kristaba, sakristaua > sakristaba, laurak/laurek > labak/labek* (Bera).

EU diptongoa

Ez dira anitz baina bai batzuk: *eun, leun...* Bertze hitz batzuetan ere Bortzirietan *eu* azaltzen zaigu: *neune, geune... eurenk*. Eta batzuetan:

eu> au: *deus > yaus;* eta *egon* eta *eduki* aditzen iraganean: *zeuden > zauden, zeukan > zaukan*

Baina murrizketak ere gertatzen dira hitz hasieran:

eu>u: *uri > uri, euli > uli, euskara > uskara.*

Aurten nola ai dun beti uriya ... (Arantza)

AI diptongoa

Maiz agertzen zaigun diptongoa dugu hau, bai hitz hasieran bai barnean bai bukaeran: *aizkora, naiz, zelai*. Baina anitzetan aldaketa batzuk agertzen dira:

ai>a: batez ere ondotik *l, n* edo *t* kontsonanteak dituenen: *zaila > zalla, gainera > gañera, baitan > battan.*

Halere, gero kontsonante sabaikarietan ikusiko dugun bezala ([ikus 5.7 atala](#)), *t* kontsonantearen kasuan Etxalarren ez da murrizten diptongoa eta *t* ere ez da palatalizatzen. Hortaz bertze herrietako *battan, ematten* edo *gattu* bilakaerak Etxalarren *baitan, emaiten* eta *gaitu* azaltzen zaizkigu.

ai>i gutiagotan suertatzen da: *baino > biño/miño(n), igitai > igitti, bezain > biziñ, egundaino > igundiño...*

Es nun posible ittia au *beziñ* polita. (Arantza)

Azkenik, *ae* hiatoa zenbaitetan *ai* diptongo bilakatzen zaigu: *izaera > izaira, pasaera > pasaira, galbahea > galbaya.*

EI diptongoa

Gehienetan eusten dio diptongoari: *bei, sei, ogei...* eta batzuetan bai ondotik *n* edo *t* kontsonanteak dituenen ere: *beñ, ereñ, leittu, beittu.*

Halere murrizketak ere gertatzen dira:

ei>i: *edozein > edoziñ; behinik behin > benpiñ (benpe), e(g)in > iñ, ehizturi > izturi.*

Denbora batin eramaten men zittuzten *edozin* gauz. (Lesaka)

ei>e: *beheiti > betti, zeinek > zeñek, teila > tella.*

4. BOKALISMOA

4.6. DIPTONGOAK

OI diptongoa

Diptongo honi ere ongi eusten zaio: *bakoitz, Jangoiko, loi, sasoi*.

Lehen aipatu dugun bezala, kontsonante sabaikarien aitzinean murrizketa gertatzen da:

oi>o: *oilo > ollo, oinez > oñaz, goiti > gotti* (Etxalarren *goiti*).

Maileguei dagokienez, mailegu zaharretan *erd. -ón > eusk. -oi:* *arratoi, arrazoi, sasoi*. Berriagoetan, gehienetan *-ón > -oi* izaten jarraitzen du: *kartoi, xaboi/txagoi, sermoi, pregoi, balkoi, ormigoi/ormigon, koltxoi, bastoi, botoi, kajoi, tabloi, meloi, garrafoi/garrafon, saloi/salon, baloi/balon, frontoi/fronton, turroi/turron, txanpiñoi/txanpiñon*

Pikatu ta gero bazen lurrian *tabloi* aundi bat... (Bera)

Bota nuen *ormigoi* pixko bat. (Bera)

Uañ ein diogu *ormigonakin* ta pixko bat kurioxo. (Etxalar)

Gero yuan tzen alkatia Ayuntamientuko *balkoira* ta erdaraz: "permiten *carnavales*". (Lesaka)

Gero *frontonan* in tzen. (Lesaka)

Oañ *frontoian* gibelin. (Lesaka)

Erd. ión > eusk. ioi/ion: *kamioi/kamion, abioi/abion, kordion*.

UI diptongoa

Diptongo hau ere ageri da gure eskualdeetan, baina gehienetan erdal maileguetan edo kontsonante baten galeraren ondorioz sortua: *deskuido, iduittu, muittu*.

4.6.2. Goranzko diptongoak.

Goranzko diptongoak, erran bezala, lehenengo osagaia *i* edo *u* bokala eta bigarrena *a*, *e* edo *o* dutenak dira. Horrela hauek dira goranzko diptongoak: *wa, we, ja, je* eta *jo*. Diptongo hauek euskararentzat nahiko arrotzak direla erran ohi da, baina gure eskualdean ez dira hain arrotz izaten.

wa: *ywan, gwazen, zwazte, gwatze, jatekwa* (Bera), *pintakwa* (Bera); hauez gain, mailegu berrietan ere bai: *kwaderno, kwadrodun, igwal, gwarda, kwarto...*

we: *zwentzat, batzwek, duzwe, swertu, egwerdi*; gainera mailegu berriak: *fwerte, swelto, swerte, prweba, bweno, jwez...*

Nahiz eta hiatoan aipatu bezala zenbaitetan murrizketak ere gertatu: *pañulo, kazula...*

ja: *yendja, bertzja, bjatz, zjaldoka, zjarka, bjarra, djabru*. Eta gainera: *kanbjatu, kopjatu, bjaje...*

je: *sjesta, gobjerno, asjento, parjente*. Hemen ere aipatu genituen murrizketak: *azinda, kontzintzia...*

jo: *bizjok* (<*begira iezaio*), *emazjozu* (<*eman iezaiozu*), *antjojuk, prezjo, bizjo, orazjo, grazjoso, diozu, diogu...*

Zenbaitetan triptongoak ere sortzen dira: *ziaurek...*

5. KONTSONANTISMOA

5.1. HERSKARIAK (P, T, K, B, D, G)

Herskarien artean ahostunak (*b, d, g*) eta ahoskabeak (*p, t, k*) bereizten ditugu.

5.1.1. Hitz hasierakoak

Bortzirietako hizkeran ahostun franko daukagu hitz hasieran, batez ere hasierako *b-*, hurrengo hitzetan ikus daitekeen bezala (maileguetan bereziki):

b-: *bago, bake, balakatu, barkatu, bataio, bazka, bazkari, bazko, bekatu, besta, bizar, bizkor, bixtu, boltsa, bozik.*

p-: *pike, pikor, piku, piper, pokadu, putz, putzu, puztan, puzker.*

d-: *danbateko, denbora, denda, dolare, dorpe, dorre.*

t-: *taratalu, tipula, titare, titi.*

g-: *galtza, ganbio/ganbiyo, gar, garesti, garraio, garresi, gartzela, gauza, golpatu, gonbittu, gorputz, gusta, gutizi.*

k-: *kanbiatu, kaprio, kalaita, kasti(ga)tu, kate, katu, kilika, kolko, konparazio, kupela, kotor.*

Aipagarria da hasieran hitz batzuk hartzen duten *b-* epentetikoa: *bustel*⁶ (<ustel), *buztarri* (<uztarri):

Idiyakin bai, ta *buztarria* bizkarrin. (Bera)

Horrez gain hasierako *wa* diptongoak ere *g-* epentetikoa hartzen du: *guatze, guartu, guañ, guaye...*

5.1.2. Bokalarteko herskariak

Bokalarteko herskari ahostunak (*b, d, g*) batzuetan galtzen dira, batez ere *-d-* eta *-g-*.

-d- > Ø: *aittu, biali/bialdu, baakizu:*

Bilbaotik *bialtzen* zten unat ta nik eramatten nion. (Bera)

Tunel bat eiña *ute*, nidua eiñ ta nola geldittu zen betti, tunel batian... (Bera)

Itxe guzitan bada *bialdua* paper bat. (Etxalar)

Elarte onek *baitu* bere lanak. (Etxalar)

Beti *baakizu* yendiri gustatzen tzayo azindak ikustia. (Lesaka)

-g- > Ø: *eiñ/iñ, deseñ, muittu, letaiñ, nausi, ziuten, kasti(a)tu, izautu:*

Pues eztut iñor izautzen. (Arantza)

Partida ikustera yuaten giñen meza *nausi* ondotikan. (Bera)

Deseiña zanen tzen ta yuan den urtian arrapatu dutela badakigu. (Bera)

Txakurrari utzitzen tzion bere karga ta *atseiten* (<ats egiten) zuen. (Bera)

Gero bi aldiz edo iru *mitu* bar da ori. (Etxalar)

-b- Ø: Kasu gutiago dira: *pixko at/pixkot.*

Uañikan oso-osuk agertzen die... *pixkot* aitzurrin asizkero soruan. (Bera)

Bokal arteko *-k-* ahostuna kasu batean, *erakutsi* aditzean, behinik behin galtzen da: *erautsi/irautsi:*

Ola ikasi gunun ta ola *irautsi* ziguten. (Arantza)

Bai, bai, *erautsiko, erautsiko* nik. (Bera)

Edozein gisatara aipatutako galera hauek gertatzen badira ere, erregulariki eusten zaie bertze eskualde batzuetan galtzen diren bokalarteko herskari ahostunei: *sobera, egur, egun, igeri, egosi, edan, edozin, eder...*

Beheranzko diptongoez aritu garenean (*ikus 4.6.1 puntua*), ikusi dugu *au+a>ab+a* bilakaera. Alderantzizko gertaera ere ageri zaigu, hots, *áb+a/ e>au, b-*ren aitzineko *a* tonikoa denean: *irauzi, illaute:*

⁶ Joanes Etxeberri Ziburukoak ere horrela dakar bere *Manual devocionezcoa*-ren 1.125. bertsoan: "Hain laburqui *bustel* dadin larharantça churia".

5. KONTSONANTISMOA

5.1. HERSKARIAK (P, T, K, B, D, G)

Gero iru *illauten* burun. (Etxalar)
 Zazpi zortzi *illaute* falta dire eta eztaikit zer pentsatuko duten ordun. (Igantzi)
 Asitzen tziren bi *illaute* lenogotik prestatzen. (Lesaka)
 Gero ogiya *akautzen* zenian, arto utsa. (Bera)
 Bueno, *akautu* arte segi. (Igantzi)

Horretaz gain *áp+a>au* ere gertatzen da, nahiz bi aldaerak ere erabiltzen diren: *arrautu/arrapatu, eskautu/eskapatu*:

Ori da nere afiziu aundiena, eizia ta ondduk *arrautzia*. (Arantza)
 Muga izattekin au lepu au *arrautu* zuten, Lizuniagako lepu au *arrapatu* zuten. (Bera)
 Yuan den urtian *arrapatu* dutela badakigu. (Bera)
 Ala ai zielikan bateri *eskapatu* zaion, barrenian zielikan... tirua *eskautu* zaion. (Bera)
 An *arrautzen* dena, dena bizirik da. (Etxalar)
 Eramaten zittuzten... ote puska bat edo *arrautzen* tzutena. (Lesaka)

Kontsonante aldaketa batzuk ere suertatzen dira herskari ahostunak bokalardean aurkitzen direnean:

-g->-b-: *suge* → *sube*; *agudo* → *abudo*.
 -g->-r/-d-: *eguzki* → *iruzki/iduzki*.

5.1.3. Ahostunak ahoskabetzea

Gauza jakina da herskari ahostunak *b, d, g* ahoskabe *p, t, k* bihur daitezkeela aitzineko soinuaren eraginez, erran nahi baita, *ez + b, d, g* hurrenez hurren *ez + p, t, k* bilakatzen direla eta gauza bera gertatzen dela *k* eta *t + b, d, g* ingurunean. Elkarketa eta bilakaera hauek hitz barnean eta bi hitzen mugetan edo sandhi deitutakoetan gertatzen dira eta guk hemen azken hauek aipatuko ditugu.

Horrez gain argi dago *ez + b, d > ez + p, t* bilakaera *d-* adizkiaren hasierako letra denean eta *b-* baldintzazko *ba-* edo *bait-* aurrizkiarena: *ez duzu* → *eztuzu*, *ez daki* → *eztaki*, *ez dira* → *eztira*, *ez bada* → *ezpada*, *ez baitzuen*

→*ezpaitzuen*:

Lesakako inautitan ateitzen diren..., *ez takit* nola erran... (Lesaka)

Baina bilakaera hori ez da gertatzen bertze ingurunean: *ez dirurik*, *ez bezalako*, eta abar.

Bertzalde *ez + g > ez + k* bilakaera ez da aitzineko bietan adina gertatzen adizkietan behinik behin ahostunak ere entzuten baitira frankotan, hala nola, *ez ginen ez gara...*

Batzuetan hiztun berak bi modutara erabiltzen du:

Bi aldiz auzo berara *ez kiñen* yuaten beñere. (Arantza)
 Ez ongi artutzikin *ez giñen* yuanen ere. (Arantza)

Bertze kontua da *-nez gero* edo *-z gero* ingurunean, hor beti ahoskabe bilakatzen baita: *ekarrizkero, espostu denezkeroztik...* :

Uañikan oso-osuk agertzen die... pixkot aitzurrin *asizkero* soruan. (Bera)
 Nai *zanezkero* parrillakin itten dut. (Arantza)

Ez da ahoskabetzen, ordea, *gero* adberbioa edo partikula denean: *ez hurbildu ez guañ ez gero; ez gero berandu itzuli!*

k, t + b, d, g inguruneari dagokionez, hagitz gutitan ahoskabetzen dira. Aitzineko *k* galtzen den kasu batzuetan bertzerik ez dugu aurkitu ahoskabetzea: *behinik behin* → *benpin/benpe*:

Kontrabandoko denbora yuan baitzen gu soldado giñelikan, aundina *benpe*. (Bera)
 Yendia, geyentsuena *benpin*, gustura etortzen da. (Igantzi)

Baina aitzineko *k* eta *t* erregulariki ez dira galtzen, eta orduan ez da ahoskabetzerik suertatzen: *egurrik gabe; zazpik dire; aurtenguk battut; bat biño geigo; neska bat da; zenbat gara?*

5. KONTSONANTISMOA

5.1. HERSKARIAK (P, T, K, B, D, G)

Bait partikulari dagokionez, Bortzirietan kasu gehienetan bertze hizkeretan hartzen dituen bilakaera berak jasaten ditu:

$t + n > n$: *bait naiz* → *bainaiz*; *bait nuen* → *bainun/bainuen*.

$t + h > y$: *bait haiz* → *baiyaiz*; *bait hintzen* → *baiyitzen*.

$t + l > l$: *bait + luke* → *bailuke*; *bait + litzateke* → *bailitzeke*.

$t + z > tz/z$: *bait + zen* → *baitzen*; *bait zuen* → *baizun/baizuen*.

$t + d > t$: *bait da* → *baita*; *bait du* → *baitu*; *bait daki* → *baitaki*.

$t + g > g$: *bait ginen* → *baigiñen*; *bait goaz* → *baiguazi*:

Reketekin ta ola yuaten *baiginen* gu gerra denborian. (Bera)

5.1.4. Ahoskabeak ahostuntzea

Badakigu euskaraz joera handia dela morfemaren muga *n* edo *l* ondotik *k* edo *t* heldu direnean hauek ahostuntzekoa, *g* edo *d* bilakatzea, alegia. Hori Bortzirietan erregulariki gertatzen da *n*-ren ondotik *-tik* eta *-ko* deklinabide kasuak heldu direnean: *emendik*, *Larundik*, *lengo*, *beingun*, nahiz eta batzuetan ez den ahostuntzen *barrendik/ barrentik*.

Aldiz, ez da beti gertatzen *l*-ren ondotik: *Samigelgo*, baina *Sunbilko*, *Xubixabalko*.

Partizipio burutuko *-tu* beti ahostuntzen zaigu *l* eta *n*-ren ondotik: *urbildu amildu*, *isildu*, *agindu*, *ozpindu*.

Partizipioari *-ta/-tako* eranstea ere ahoskabe eta ahostun bilakaerak azaltzen zaizkigu: *erranta*, *etzanta/etzinta*, baina bai eta *errandako*, *ereñdako*, *ilda*.

Ez da ahoskatzen ordea, sinkoparen ondotik: *dagonko*, *olko*...

5.2. DARDARKARIAK (R, RR)

Gu asi *giñenko* baziren motosierrak. (Arantza)

Ta guk nai *gununko*, osea bestatako, ein tzuten. (Igantzi)

Antzinko egunetan ibilliko seriotasunak anztea gonbeni da. (Lesaka)

Erator atzizkiei dagokienez, *-tegi* erregulariki ahostundua ageri zaigu: *gaztaindegi*, *Mindegi*, *zurgindegi*, *arboldegi*, , *amildegi*. Baina, *amontegin*, *lantegi*...

-go atzizkiarekin, berriz alderantzizkoa suertatzen zaigu, alegia *n*-ren ondotik ahoskabetu egiten zaigula: *arginko*, *ikazkinko*, *zurginko*, *eskulanko*...

Mendu atzizkia ahoskabea nahiz ahostuna ageri zaigu: *mandamentu*, *ayuntamentu*, *razionamentu*, *kargamentu*, *entrenamentu*... baina *sentimendu*, *zimendu*, *mugimendu*...

Gero *razionamentu* zikiñ arekin ...! (Bera)

Biño tartian *mantenimentu* ttikia ta lan guti. (Etxalar)

5.2. DARDARKARIAK (R, RR)

5.2.1. Dardarkari samurra (r) eta gogorra (rr)

Gure hizkeran ongi bereizten dira *r* samurra eta gogorra. Hortaz bokalarrean bikoteak sortzen zaizkigu: *gora / gorra*; *ura / urra*. Areago hitz bukaeran dardarkari samurra duten hitzak, *plater*, *paper*, *ur*, *zur*... bokalez hasten den hitz batekin elkartzen badira, *r* samurrari eusten diote; ez, ordea kontsonantez hasten den hitz batekin elkartzen direnean, orduan *r* gogortu egiten baita. Hortaz *plater ttikia*, *paper polita*, *ur zikina* edo *zur samurra* erratean *r* gogortu egingen zaigu; baina *plater ona*, *paper aundia*, *ur epela* edo *zur argia* erratean *r* samurra ahoskatuko dute. Dena dela, adineko pertsonak bereizketa honi eusten badiote ere, gazteengan galtzen ari dela ematen du.

5. KONTSONANTISMOA

5.2. DARDARKARIAK (R, RR)

5.2.2. Errotazismoa

Jakina den bezala ekialdeko euskalkietako berezitasuna da eta gure bi hizkeretan ere halaxe ageri da: *erran, ernatu, bertze, bertzela, honenbertze, horrenbertze, hainbertze, ortzegun, ortziral, ortots..*

Komentariuk ateitzen batek *bertziri* ta eztaikit zer. (Bera)
Bertze erritan mozorruk deitzen zayona. (Lesaka)

Bertzalde, *bortz / bos, amabortz / amabos...* bi aldaerak erabiltzen dira, bai eta hiztun berak ere:

Gero in tzuten *amabos* bat metro do ez takit zer ttuen. (Bera)
 Notak artzera tortzen tziren *bortz* urtetik. *Bortz* urtetik agertzen tziren. (Bera)
 Uañ segur aski patuko die *bortz, bos* manera. (Etxalar)
 Bueno ogeita *bortz* urte betetzen zitun. (Etxalar)
 Ogeita *bortz* urte badamazkigu bueltaka. (Igantzi)
 Orduan *bos, sei, zortzi* karro itten tziren. (Bera)

Halere *bortzeun* erabiltzen da eta ez *bosteun*.

5.2.3. Bokal protetikoak

Mailegu zaharretan beti agertzen zaizkigu *a* edo *e* bokal protetikoak: *arrasto, arrazoi, arratoi, arrisku, arropa, arrosa, arrosario, erramu, erregatu, errege, erregularki, erremedio, errenkura, errenta, errezo, erreztu (<errezatu), errestu (<errestatu), errota.*

Mailegu berriagoetan bi aldaerak agertzen dira: *arrantxero / rantxero, arraya / raya, errebote / rebote...*

Arek *erreboteraño* aisa botatzen zun pillota. (Igantzi)
 Arek *rebotia* itten baitu barrentik. (Bera)

Mailegu modernoetan ez du hartzen bokal protetikorik: *radio, raro, rato, rasionamentu, redondo, rejilla, rekete, remolke, reuma, reunione, rueda...*

Ze *raro!* (Arantza)
 Emen *rejilla* bat dago azpiyan iña. (Arantza)
 Uañ badire *radiuk*, telebisionik, denak itxin. (Arantza)
 Rato bat aski ona pasatzen dugu. (Igantzi)
 Tupia erratten tzioten, paziya bezalako bat, ola *redondua*. (Bera)
 Onako emen *rueda* bat ibiltzen da goitikan. (Bera)

5.2.4. Bokalarteko r-ren galera

Batzuetan galtzen bada ere, ez da mendebaldeko ondoko hizkeretan adina galtzen bokalarteko *r*. Hona hemen kasu batzuk: *nabaittu, ai/ari, aittu, guañ/uañ, erori/eroi, ate(i)tzen, aixtin, dire/die, biamun, koletu, dudik, iduitu...*

Gero an gaba pasatu ta *biamunin* buelta. (Bera)
 Orduan erdaraz aisa *ai* nitzen; gaizki biño benpe *ari*. (Bera)
 Pentsazu ori ola *aittua* (<aritu) zatteko. (Bera)
 Oik *die* iten diren lanak. (Etxalar)
 Bai niri *iduitzen* ala dela, bai. (Etxalar)
 Uañ *idui* du erriko yendia gustura etortzen dela. (Igantzi)
 Norbatt *eroitzen* bada edo urratzen asitzen bada... (Lesaka)

5.3. ALBOKARIAK (L, LL)

Gauza guti da albokariez erran beharrekoa. Gure hizkeran ongi eusten zaie bi kontsonante hauei eta adinduen artean *ll* orain arte ongi ahoskatu bada ere, gazteen artean yeismoa zabaltzen hasi da dagoeneko.

Aipatzekotan *ld > l* murrizketa aipa genezake: *bildu* → *billu*; *baldin*

5. KONTSONANTISMOA

5.3. ALBOKARIAK (L, LL)

→ *balin*. Baina *beldur* eta inoiz ez *belur* edo *billur*:

Bueno falta dire aunitz, biñon igual pixko bat *billuko* ttut. (Bera)
Sagardu iteko ez *palin* bada, espresa biar tzu [sagar] geza. (Etxalar)
Nik momentun bazala pentsatzen *balin* badut... (Igantzi)

bl > *br* bilakaera *brusa* hitzean aurkitu dugu.

5.4. SUDURKARIAK (M, N Ñ)

Bortzirietako hizkeran sudurkariak erregularoki bere horretan dira eta ez dute galera edo aldaketa handirik jasaten. Hala ere aipa ditzagun batzuk.

5.4.1. Sudurkarien galera

Aurkitu ditugun galerak *n*-renak izan dira, eta ez anitz. Mailegu zaharretakoez gain (*katea*, *aate*...) agintera adizkien aitzineko aditza *n*-z bukatzen denean hau galtzen da: *eraman ezazu* → *eramazu*, *erran ezak* → *errazak*, *jan ezazue* → *yazue*, *egon hadi* → *egodi*.

Galera bera gertatzen da *nor-nork* aditzen subjuntiboko hirugarren pertsona gehi *-la* adizkiekin, baina ez bertze pertsonakoekin: *egin dezala* → *izala*, *eraman dezatela* → *eramazatela*; baina *edan dezagun* → *edantzagun*; *joan dadila* → *yuandaila*.

Joan eta *izan* aditzek behinik behin, geroaldiko aspektua gauzatzerakoan hondar *n* hori galtzen dute zenbaitetan: *izanen dute* → *zein te*, *joanen da* → *yuein da*.

Arrastuak ikusiak edo *zein* xuxten (> izanen zituzten). (Bera)

5.4. SUDURKARIAK (M, N Ñ)

Horrez gain, gure hizkeran diptongo gehi *n*-z bukatzen diren hitzek (*itzain*, *artzain*, *usain*, *arrain* ...) *-n* galtzen dute erregularoki: *itzai*, *artzai*, *usai*, *arrai*...

5.4.2. Asimilazio eta kontsonante alternantziak

nb > *m* anitzetan gertatzen den bilakaera da bai hitz barnean bai hitz mugetan: *lehenbizi* → *lemizi*, *zenbat* → *zemat*; *izan behar du* → *zamardu*, *egin behar du* → *imar du*, *baldin baduzu* → *balimazu*

Pentsatu nun zerbattere; *lemiziko*, batekin in nun prueba. (Arantza)
Ta *lemiziko* makiyak agertu ziren Saran...ta an ill *zamar* (> izan behar) zten. (Bera)
Ikusi *balima* zte usuak *egomar* te al den bezala gordiak. (Etxalar)
Besta bertze batzuk bederen *egimarko* dugu ta *imar* (<egin behar) dugu. (Etxalar)
Biño sua delik lana fuerte *imar* da. (Etxalar)
Zemat imar te ttu orrek? (Lesaka)

Alderantzizko kasuren bat ere jaso dugu: *kamioi* → *kanbion*.

nd multzoak jeneralean aldaketarik jasaten ez badu ere, hala nola, *yende*, *aundi*, *xenda*, *sendatu*..., batzuetan *nd* > *n* murrizten da: *ninduten* → *niñuten*, *ninduen* → *niñu(e)n*.

Ta ola deitzen *niñuten* gaztia nitzelikan. (Lesaka)

Bertze batzuetan bigarren aldaketa ere nozitzen du multzo honek, errate batera, *konprenditu* → *konpreint(t)u*, *entenditu* → *enteint(t)u*, *errenditu* → *erreint(t)u*, segur aski murrizketa ondotik *ni* > *in* bilakatzen delakoz.

Batzuetan *m/b* alternantzia suertatzen da: *merienda* → *berendu/merendu*, *veneno* → *beneno/meneno*, *baino* → *biño/miño(n)*.

5. KONTSONANTISMOA

5.5. IGURZKARIAK (J/Y eta F)

5.5.1. J/Y soinua

Bortzirietan, hitz bakan batzuetan eta mailegu modernoetan izan ezik, y ahoskatzen da. Horrela hitz hasieran: *yan, yai, yarri, yauntzi, yautsi, yakin, yo, yuare, yokatu, yori, yorratu, yostatu, yosi*. Bai eta maileguetan ere: *yuzku, yuntatu* (baina *junta*), *yornal, yuxtu-yuxtu(a)n, yende...*

Yuntatzen die bi, iru, lau lagun... (Etxalar)

Hitz hasieran erran genezake *j* bakarrik *Jauna* (baina *yaun ta yabe*), *Jangoiko, jito...* eta horiez gain mailegu moderno batzuetan erabiltzen dela: *jenio, jertse, jubilarzio, jodittu, juez, junta, justizia, jota...*

Bai, biño sartuak ola *juntan* ni bakarrik. (Arantza)

Erran tziguten neska kuadrilla bateri, ola pixkot *jotan* ibiltzen giñenak... (Lesaka)

Maileguren batean *j > x* sabai-aurreko txistukari bilakatzen da: *xagoi* [txagoi (Arantza)].

Hitz tartean baditu *x* sabai-aurreko bilakatzearen kasu gehiago: *paxa, lixiba, prexitu, perrexil, Oxokin* (<Jose Joakin)... baina bai *j* belareak ere: *biaje, erloju/reloju, ajari, imajin bat* (<makina bat), *fijatu, kajoi/kajon, konejo, illaje, yendaje, bandidaje, traje, bentaja, biaje, majo...*

Itten dugu *biajia* urtero Berara ta Lesakara. (Arantza)

Bi *biaje* in nittuen. (Bera)

Beretzat *bentaja*. (Etxalar)

Mairu deitzen tzayo auniztan *trajik* tela puxkakin egiten direnak. (Lesaka)

Gizajo eta gizaixo biak erabiltzen dira eta dirudienez bigarrena lehenengoaren ttikigarria da.

An ibilli zten, bueno deseñ arte *gizajua*. (Bera)

5.6. TXISTUKARIAK (Z, S, X, TZ, TS, TX)

5.5.2. F fonema

Gure eskualdearekin Mendebal aldera muga egiten duten herrietan ez bezala, hauetan bietan hagitz normala da *f* fonema: *feria, falda, fede, fiatu, afari, fama, ferra, alfer, infernu, funtzio/funtzione, franko, konforme, sufrit(t)u, faltso, fijatu, konfesio, flako, fresko, alfalfa, afizio...*

Hagitz guti dira *f > p* bilakaera dutenak: *paxa, prexit(t)u, pantasia, panparroi / fanfarroi*

Panparroya zaten tzen izugarri. (Bera)

Eta bertze guti batzuk *f > b* dutenak: *besta, bago, balakatu/ballakatu, bortitz*.

5.6. TXISTUKARIAK (Z, S, X, TZ, TS, TX)

Inguruko hizkeretan bezala gure eskualdean hagitz ongi bereizten dira hots txistukari guziak. Txistukariak bi sail dauzkate: igurzkariak, *s, z* eta *x* zeinuez ematen ditugunak eta afrikariak, *ts, tz* eta *tx* zeinuez emanak. Ez da inolako arazorik konparazio batera, *atzo, atso* eta *atxo* bereizteko, ez eta hiru igurzkariak bereizteko ere.

Dena dela, haurren edo gazteen artean gero eta gehiago ari da suertatzen *ts* eta *tx*-en arteko neutralizazioa *ts*-ren kaltetan. Izan ere, gero eta gehiago entzuten baitira *itxu, itxaso, itxusi, otxo* eta gisakoak, orain arte eskualde hauetan hagitz ongi ahoskatu diren *itsu, itsaso, itsuki, otso*.

Hitz hasieran igurzkariak dira erregularri ageri zaizkigunak:

5. KONTSONANTISMOA

5.6. TXISTUKARIAK (Z, S, X, TZ, TS, TX)

- z- zakur, zerri, zama, zentzu, zikin, zimur, zimiko, zor, zoratu, zoko, zotz...
- s- sabel, sagar, sail, sakon, samar, sarri, seguru, seme, sinetsi, sorgin, su...
- x- xalma, xanga, xenda, xabal, xerri, xamar, xabor, xar, ximur, ximiko, xoko, xoratu ...

Ori lotu itten da eta lastozko *zapela* yausere bertzerikan. (Lesaka)

Ikus daiteke x-z hasten diren batzuk bertze euskalki anitzetan tx-z gauzatzen direla: *txerri, txoko, txoratu...*, eta bertzeak z-z eta s-z hasitako hitzen aldaera adierazkorak bertzerik ez direla: *zabal / xabal, zakur / xakur...* eta abar.

Malerrekan, konparaziotara, hagitz afrikari guti ageri dira hitz hasieran. Bortzirietan, gehiago. Zer dela eta?

Badirudi tx, hasieran bertze txistukarien aldaera adierazkor gisa erabiltzen zela (*zori > txori*). Baina gero, Gipuzkoako hizkeretan bereziki, bere balio adierazkorra galdu zuen. Bortzirietan, oro har, ongi eusten zaio balio adierazkor horri: *zikin/xikin; zabal/xabal; zoko/xoko...* Hala ere, Gipuzkoako hizkeren eragina gehiago jasan duelakoz edo, tx-z hasitako hitz batzuek bere balio adierazkorra galdu dute, eta nagusitzen ari dira. Hortaz Bortzirietan *txori, txoratu, txistu, txungur, txingoka, txutik, txartela...* hitz arruntak dira, gaur egun adierazkortasuna galdu dutenak.

Hitz hauez gain *txoil* eta *tzar* ere hitz hasierako afrikariak ditugu Bortzirietan, Beran gutienez.

Hitz tartean eta hitz bukaeran txistukari guziak ager daitezke nahiz eta bukaeran normalenak tz eta ts afrikatuak eta z igurzkaria diren.

Adierazkortasuna adierazteko aldaketa hauek egiten dira: *s > x; z > x; ts > tx; tz > tx*. Eta lehen ikusitako hitz hasierakoez aparte, hitz barnean eta hitz bukaeran ere agertzen da adierazkortasuna: *baso / baxo, puska / puxka, gizon*

/ gixon, luze / luxe, galtza / galtxa, motzegi / motxegi, mantso / mantxo, faltso / faltxo, beltz / beltz, motz / motx, motots / mototx, bildots / bildotx...

Ladrillua zatten tzen mazizua, ez xiloduna, *maxixua*. (Bera)

Mairua deitzen tzayo auniztan trajik tela *puxkakin* itten direnak. (Lesaka)

Bai, bai, goitarrak murrirtu ziren franko. (Lesaka)

Baina honek ez du erran nahi sabaikari guziak adierazkorak direla; *bakoitz / bakotx* aldaeren artean errate batera, ez da alderik sumatzen erranahiari dagokionez.

N, l eta r ondoko txistukariak

Erran daiteke ia Euskal Herri osoan z eta s igurzkariak afrikari, tz eta ts alegia, bihurtzen direla n, l eta r-ren ondotik, eta ez hitz barnean bakarrik (*kontzientzia, kontsolatu, faltso, bertso...*) bai eta bi hitzen artean ere, batez ere bigarrena adizkia denean (*eman tzion, hurbil tzedin...*).

Gure hizkeran argi dago hitz barneko bilakaera gertatzen dela n eta l ondotik gutienez: *funtzio, pentsatu, pultsera, koltza...*; r-ren ondotik, ordea, ez dago hain garbi. Batzuetan garbi entzuten da: *bertso, portzierto...* baina bertze batzuetan *persona, persiana...* ere aditzen dira.

Bi hitzen mugan ere gauza bertsua suertatzen da, hots, n eta l-ren ondotik ia kasu guzietan afrikatzen direla: *yuan tzen, man tzioten, urbil tzu, ematen al tzioten...*; r-ren ondotik, berriz, denetatik entzuten da: *kar tzu, sar tzak...* baina bai eta *tor zen, biar zun*.

Kalkulaten tzu ze dañu dien eta... (Etxalar)

Etxalarkuk ere pare bat ibiltzen tziren. (Bera)

5. KONTSONANTISMOA

5.6. TXISTUKARIAK (Z, S, X, TZ, TS, TX)

Ez adberbioaren ondoko aldaketak

Lehen erran dugu (*ikus 5.1.3 puntua*) *b* eta *d*, herskari ahostunak ahoskabe (*p*, eta *t*) bihurtzen direla ez adberbioaren ondotik suertatzen direnean: *ezpadu*, *eztaki*.

Ez + z-ren elkarketaren ondorioa *e+tz* izaten da z adizki baten lehen letra denean: *etzara*, *etzigun*, *etzeki(e)n*, *etzoayen*.

Bueno guri *etzigun* batere inporta. (Lesaka)

Eta adizkia *n* edo *l* letraz hasten denean, berriz, erregularki z galdu egiten da: *eluke*, *elitzaioke*, *enintzen*, *enago*... Hala ere, *esnaiz*, *esnun* eta antzekoak entzunkatu ditugu tarteka, Arantzan behinik behin:

Esnun artu unekin zizela ta *esnun*, *esnun* indarriken itten, indar mantsua nun. (Arantza)

Esnun posible ittia au bezin polita. (Arantza)

Ni *esnaiz* artista. (Arantza)

Bertzalde, ez da hain harritzekoa bilakaera hau, *zn* > *sn* bertze ingurunetan ere ageri delakoz: *aznahia* > *asnaia*.

Azkenik ez + y ingurunean ere *e+y* da ondorio normalena: *eyitzen*, *eyu(e)n*, nahiz eta ez *yitzen* eta *ezyu(e)n* ere entzuten diren.

5.7. SABAIAKARIAK (Ñ, LL, TT)

Sabaikarien atal honetan kontsonante palatalizatuez ari gara, *ñ*, *ll*, *tt*, *dd*, *x* eta *tx* kontsonantez alegia. Txistukariez ari izan garenean (*ikus 5.6 puntua*) *x* eta *tx*-ei buruzko aipamena egin dugunez gero, atal honetan *ñ*, *ll*, *tt* eta *dd* hartuko ditugu kontuan.

5.7. SABAIAKARIAK (Ñ, LL, TT)

Sabaikaritze prozesua bi modutakoa izan daiteke: a) inguruneak eraginda automatikoki sortzen dena eta b) adierazkorra edo adiera berezia lortzeko nahita egiten dena. Sabaikaritze automatikoa *n*, *l* eta *t* kontsonanteen aitzinean *i* bokala (bokal osoa nahiz *ai*, *ei*, *oi*, *ui* diptongoen osagai gisa) aurkitzen denean sortzen da: *miñ*, *soñu*, *ollo*, *pilla*, *itto*, *gotti*... Adierazkorra, aldiz, hitzaren edozein ingurunetan suertatzen ahal da: *ñabar*, *pollita*, *polliki*, *ttente*...

5.7.1. Ñ eta LL

Gure hizkeran, sabaikaritze automatikoa erregularki sortzen da *i+n* eta *i+l* hitz bukaeran edo bokal baten aitzinean suertatzen direnean. Adibide anitz ditugu: *miñ*, *ariñ*, *fiñ*, *añ*, *bekañ*, *señale*, *siñetsi*, *soñu*, *gañera*, *biño*; *ill*, *botill*, *automobill*, *tella*, *ibilli*, *pillota*, *alletu*, *bakallo*...

Biño beñere enuen edana [garagardoa] ta ordun txarra. (Bera)

Baina *i+n*-ren kasuan ondotik kontsonantea badago, ez dirudi bustidurarik sortzen denik: *inporta*, *interesgarri*, *mingarri*, *aingeru*, *ointukuk*, *zikin-zikiña*.

Maileguetan ez da beti bustitzen: *famili*, *fraile*, *zine*...

Sabaikaritze adierazkorrari dagokionez ez dira kasu anitz: *ñabar*, *ñañarro*, *mañddoko*, *ñiñiko*, *llabur*, *polliki*, *pollit*... :

Atei zuten *biño* bertze direkziuan, *llaburragua*. (Bera)

Agitz makina *pollita*, aspaldikua. (Bera)

Beti giro *pollita* emaiten du. (Etxalar)

5. KONTSONANTISMOA

5.7. SABAIAKARIK (Ñ, LL, TT)

5.7.2. TT eta DD (edo Y)

T-ren bustidura: *tt*

Bustidura automatikoa

TT bustidura automatikoa maiztasun handiz gertatzen da, Etxalarren izan ezik. Izan ere, *tt*-ren sabaikaritze honetan Etxalar erabat aldentzen da Bortzirietako bertze lau herrietatik, Etxalarren nekez palatalizatzen baita *ttiki* eta beste hitzen batean ez bada.

Lehen erran dugu *i+t+bokal* ingurunean suertatzen dela bustidura eta Etxalar ez bertze herri guzietan maiztasun handiz gauzatzen da: *iturri, apetittu, itto, kitto, segittun, zirrikittu pulpittu, atta, matte, attortu, betti, gotti...*; [Etxalarren: *iturri, apetitu, ito, eta abar*].

Etxalarren, berriz:

Bueno denak *maite*, biño izigarri *maite* zuten. (Etxalar)

Hala ere badira salbuespenak bereziki maileguetan: *ermita, jito, pita, bisita, gitarra...*

Ingurune batzuetan erregulariki gertatzen da bustidura automatikoa:

a) *-tu* partizipio atzizkiarekin: *argittu, ukittu, urrikittu, muittu, deittu, leittu, goittu, oroittu, lasaittu, aittu, aundittu, lodittu, idurittu*, [Etxalarren: *argitu, ukitu, urrikitu, eta abar*]

b) *-te* aditz-izen atzizkiarekin: *jakitte* (eta ondorioz, *jakitten, jakittera, jakitteko* eta abar).. *irakitte,(e)itte, deseitte, eraitte, ereitte* [Etxalarren: *irakite,(e)ite, eta abar*].

Billera orretan yuanen gara gauzak geixigo *yakitten ta eitten*. (Igantzi)

Zatten zutelakoz prisa abuztuan arbiya *ereitteko*. (Arantza)

Etxalarren, ordea, ez da palatalizatzen:

Urtin *iten* tu iru prueba motobonbak. (Etxalar)

Hauetz gain, *izan, egon, erran, eman* eta *eraman* aditzen aditz-izena *-tte* suertatzen da Arantzan, Beran, Igantzin eta Lesakan, hala nola, *(i)zatten, egotten, erratten, ematten, eramatten*; honen arrazoia hauen forma zaharretan dagoela dirudi, zeren Etxalarren, *t*-ren bustidurarik gertatzen ez denez, *izaiten, egoiten, erraiten emaiten eta eramaiten* baitira.

Argiñanok *erratten* dun bazala dena probexu imar da. (Arantza)

Bueno pixkot barrenin *egotteko* ere bota nun ormigoi pixkot. (Bera)

Eguldik batere laguntzen badu *izatten* al da egun bat polita. (Igantzi)

Emen gustura *egotten* gara. (Igantzi)

Urte aunitz da asi nitzela premiuk *eramatten*. (Lesaka)

Etxalarren ordea:

Beti giro polita *emaiten* du eta gustorat *egoiten* gara. (Etxalar)

Itxequak *emaiten* du lodixigua dela. (Etxalar)

Biño *zaiten* die momentu onak ere. (Etxalar)

Uaño nola *erraiten* baitigu karabiñeruri eltzetza, pues igual. (Etxalar)

c) Adizkietan ere sabaikaritzen da *it-* ondotik bertze bokal bat dagoenean: *zattu, gattu, ditteke, dittu, zittu(e)n...* Eta adizkiaren lehen silaba galtzen denean ere sabaikatua izaten jarraitzen du: *erosi ttu, eraman ttugu, igorri ttuzte, erran tteke, eta abar*. Beti bezala Etxalar salbuespen dugu: *zaitu, gaitu...* eta *erosi tu, eraman tugu, eta abar*.

d) Galde hitzei eransten zaion *-bait* atzizkiaren *t* ere bustitzen da bokal aitzinean : *norbatt(ere), zerbatt(ere) / zerttere, noizpatt(ere), nunbatt(ere)*. [Etxalarren *norbait(ere), noizpait(ere), eta abar*].

Or da *nunbattere* ori re. (Arantza)

Pues *nonbattere* baldin bada nai duna apuntatu... (Igantzi)

Zerbattere pentsatzen dut kar barko dela. (Igantzi)

5. KONTSONANTISMOA

5.7. SABAIAKARIAK (Ñ, LL, TT)

Eurek ere *zerbaiten* parte artu naizik [karroa] ein tzuten. (Etxalar)
 Pruebak in ta *zerbaitere* fallo balin badu ola, ek konpondu. (Etxalar)

- e) Leku kasuetan erabiltzen den *baita* posposizioa ere sabaikaritzen da: *zure battan, horren battan...* [Etxalarren *zure baitan...*].
- f) Adizkien lehenengo pertsonaren *t* morfema denean franko maiz bustitzen dira *eman ditt, badakitt, (e)torri zaitt, eztakitt...*, Etxalarren izan ezik.

Nik zer *dakitt*? Erriako gizonak artu zuten akuerdia. (Bera)
 Ez *takitt*, badut astia azkarki ta... (Bera)
 Gustatzen *zaitt* azindak ikustia. (Lesaka)

Hurrengo ingurunetan, ordea, ez da bustidurarik gertatzen:

- a) *Ta* (<eta) emendiozko juntagailua denean: *baita, ikusita, yarrita, utzita...*:

Ta badakizu, pixko bat animoxogo, ola *yarrita*. (Bera)

Gauza bera gertatzen da *-tako* eta *-takoan* aditz atzizkiekin: *ekarritako, erositako, ikusitakoan...*

- b) Adizkietako hirugarren pertsona pluraleko *-te* morfema: *dakite, daramazkite, ditek...*
- c) *-tik, -tan, -tara, -tako, -tatik* deklinabide atzizkiekin: *menditik, azpitik, menditan, guttitan, zortzitan, erritara, zazpitako, ...*
- d) *-tasun, -tar, -te, -tegi* atzizki eratorriekin: *argitasun, bizitasun, menditar, erritar, urite, zerritegi, beitegi...*

- e) *Bait-* partikula menderagailuarekin: *baita, baitu, baitago, baitute...*
 Bertze kontua dira *baittu* (<*baitittu*), *baittio* (<*baitittio*), eta abar.

Hauek lehen aipatu ditugun bustidurak baitira silaba aferesiz galdu dutenak.

Bustidura adierazkorra

Bustidura adierazkorra *i+t* ingurunetik aparte suertatzen ahal da, hiztunaren baitan baitago egitea edo ez egitea. Ez dira txistukariak bezain maiz agertzen, baina badira batzuk: *ttar, ttattar, ttantta, kattu, kattokume, muttur, puntta, puntu(a)n, pottoko, pottolo, mottel, pattal, pittar, muttu, ...*

Izen berezietan eta izengoitietan ere: *Mattin, Katti, Kattalin, Kotte, Tterrible...*

D-ren bustidura: *dd* (y)

Ez dira bustidura anitz gure hizkeran ageri direnak. Ia denak *ind+bokal* ingurunean suertatzen dira: *mainddire, aginddu, arinddu, urinddu, irinddu, orainddu, zikinddu...*

Saldetsan *inddarduak*, Iratxekoberin ere bai. (Bera)

Bustidura gabekoak ere erabiltzen dira eta nekez suma daiteke, errate batera, *ordaindu* eta *ordainddu*-ren arteko alde semantikorik.

Toponimian ere adibideren bat azaltzen zaigu: *Minddegi*.

Ingurune horretatik aparte ere baditugu bertze hitz guti batzuk: *onddo, ddolddor...*

Azkenik, bustidura adierazkor batzuk ere bildu ditugu: *manddattari, mañddoko, onddarrak...* Izen bereziak ere bai: *Maddalen, Maddi...*

6. IZEN MORFOLOGIA

6.1. SARRERA. DEKLINABIDEAREN EZAUGARRI OROKORRAK

6.1.1. Mugagabearen erabilera

Batzuetan ez dira bereizten mugagabea eta singularra: edozein *eskun* eta nere *eskun*, edozein *eskukin* eta nere *eskukin*.

Bertze batzuetan singularra erabiltzen da mugagabea erabili beharrean:

Bi *minutun* [egiten da]. (Arantza)

Edozin *klasekua* erosten al duzu. (Lesaka)

Edo herri guzietan *sura* bota edo *mezara* joan erraten da.

Hala ere, oraindik kasu anitzetan erabiltzen da:

Ta gero tarteka ospitaletara o eztakit *medikutara*. (Arantza)

Ta gero ollaskua ur *berotan* pixko bat sartzen tzu. (Arantza)

Eskatzen tzayon alkatiri permisua zeñ *auzotara* yuan mar tzen. (Arantza)

Ura emen *eltzetzu* egondu zen. (Bera)

Lau zien ta iru yuan tziren *fraile*. (Bera)

Usotan asitzen da urriyan. (Etxalar)

Uañ *kurioso* itten da. (Lesaka)

Ze *estadutan* gelditu zen! (Lesaka)

6.1.2. -a mugatzailea gehitzea

Beran eta Lesakan maizago gertatzen da *-a* mugatzaile gehitze hori. Arantzan, berriz, nekez entzuten dira horrelakoak. Horrela, Beran *mayako* ardua diote eta Arantzan *maiko* ardua. Hona hemen adibide batzuk:

Asuran pokadu bat yan, *itxia* artan man tziguten pixko bat... (Bera)

Gero etzen uaingo *frontoya* ori, Eztegaran den ori etzen. (Bera)

Eztakit... badut *astiya* azkarki. (Bera)

Nik eztakitt, *erriako* gizonak artu zuten akuerdua ura kentzeko. (Bera)

Uañ itxe *aundeya* oyetan badie igual pisuk in tuztenak. (Etxalar)

Lemiziko kategorikuk die itxe *aundeyak*, itxe *aundeya* oyek. (Etxalar)

Ikusten ahal da erakusleekin maizago gehitzen dela *-a* mugatzailea eta hau bera ikusten dugu, bokalismoaz ari izan garenean, aipatu dugun Anastasio Echeverriren sermoietan:

Auche da ... araco pensamentu *miragarriya* ura, ... gu alchatzen *gattubena* ura, munduco qriaturen *desverdiña* ura gure ganiq arrancatzen *dubena* ura viciyuac aborreciyerazten eta virtutien egerciciyorat poderosoqui mugierazten *gattubena* ura.⁷

Bertzalde, Beran eta Lesakan gutienez, *trena bidia* erraten zaio trenbideari.

6.1.3. Berezko -a galtzea

Bokalismoaren kapituluan ikusi dugu *-a + -a > -a* bilakatzen dela Bortzirietan. Horren ondorioz edo, bukaeran berezko *-a* duten hitzek batzuetan galtzen dute: *sill* bat, *gauz* bat, *eskol* bat, *denbor* batin, ...

Gureztat igual tzen *denbor* txarra zan edo elurra zan. (Arantza)

Or egon naiz hainbertze *denbor* zure esperuan. (Bera)

Gerra *denborian* (<denbor-ean) etzen *musikik*, etzen *bestik* ta yaus izandu. (Bera)

Gero lurko sua zen. Lurrin. *Kozinik* etzen. (Igantzi)

Mez bat emanen dugu il diren soziungatikan. (Igantzi)

Gero zatten dire *pillot* partiduk. (Lesaka)

7 SATRUSTEGI, Jesús M^a. 1997. "Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatuak". Fontes Linguae Vasconum 74: 103. or.

6. IZEN MORFOLOGIA

6.1. SARRERA. DEKLINABIDEAREN EZAUGARRI OROKORRAK

6.1.4. Ergatibo singular eta plurala

Bortzrietako hizkerak ez ditu bereizten ergatibo singularra eta plurala, beti *-ak* erabiltzen baita. Bertzalde, mendebalean aurkitzen diren hizkera auzoek azentuan ez bada intentsitatean bederen bereizten omen dituzte, baina gurean ez dugu inolako alderik sumatzen ez bokalez ez kontsonantez bukatzen diren hitzetan.

Dena dela, badira hitz guti batzuk pluralean *-ek* marka hartzen dutenak, baina hitz horietan *-ek* hartzen dute bai *nor* eta bai *nork* kasuetan. Hori *bi* eta *hiru* zenbakiekin gertatzen da (beti *biek* eta *iru(r)ek* egiten da), baita *batzuk* eta *guziak* zenbatzaileekin (beti *batzuek* eta *guziek*), hiatoa murrizten ez denean alegia:

Gu zaldi gañian *biyek* bazterrin eta ura erdiyan. (Bera)

Zatten ginttun olako kazu *batzuek*... (Lesaka)

Guañ dela urte *batzuek* eskatu gunun laguntza. (Lesaka)

Bi eta *hiru* zenbakiek orduetan *-ak* marka hartzen dute: *bi(y)ak arte*,edo *iruak dire*.

6.1.5. Bokal itxitura eta hiatoaren murrizketak

Lehenengo atalean mintzatu gara bokal elkarketan suertatzen diren bokal itxituraz ([ikus 4.1.1 puntua](#)) eta hiatoaz ([ikus 4.4 puntua](#)) eta honen murrizketaz ([ikus 4.5 puntua](#)). Han aipatu bezala izen eta deklinabide kasu-marken artean egiten dira aldaketa batzuk, baina orain ez dugu han errandakoa errepikatuko.

6.2. ERAKUSLEAK

IGANTZI
ETXALAR

6.3. LEKUZKO ADITZONDOAK

BERA

6.4. PERTSONA IZENORDAINAK

ARANTZA
LESAKA

6.5 GALDETZAILEEN BIDEZ OSATUTAKO IZENORDAINAK ETA ADITZONDOAK

BERA

6.6 IZEN ARRUNTAK

BERA
ARANTZA

6.7 IZEN BEREZIAK

ETXALAR
IGANTZI

([ikus ondoko taulak](#))

6. IZEN MORFOLOGIA

6.2. ERAKUSLEAK

IGANTZI

Singularra

NOR	au	ori	ura
NORK	unek/onek	orrek	arek
NORI	uneri/oneri	orri	areri
NOREN	unen/onen	orren	aren
NORENTZAT	unentzat/ onentzat	orrentzat	arentzat
NOREKIN	unekin/onekin	orrekina	arekin
NORENGATIK	unengatik/ onengatik	orrenengatik	arengatik
NORTAZ	unetaz/untaz	orretaz/ortaz	aretaz/artaz
NON	unetan/untan	orretan/ortan	aretan/artan
NONGO	unetako/untako	orretako/ortako	aretako/artako
NORA	unetara/untara	orretara/ortara	aretara/artara
NORAINO	unetaraño/ untaraño	orretaraño/ ortaraño	aretaraño/ artaraño
NONDIK	unetik(an)/ untik(an)	orretik(an)/ ortik(an)	aretik(an)/ artik(an)
NORENGAN	un(e)tan/ unenbattan	orr(e)tan/ orrenbattan	ar(e)tan/ arenbattan
NORENGANA	unengana/ onengana	orrenengana	arengana
NORENGANAINO	unenganaño	orrenenganaño	arenganaño
NORENGANDIK	unetik/untik	orretik/ortik	aretik/artik

Plurala

NOR	ok	orik	ek
NORK	ok	orik	ek
NORI	okeri	orikeri	ekeri
NOREN	oken	oriken	eken
NORENTZAT	okentzat	orikentzat	ekentzat
NOREKIN	okin	orikin	ekin
NORENGATIK	okengatik(an)	orikengatik(an)	ekengatik(an)
NORTAZ	otaz	oritaz	etaz
NON	otan	oritan	etan
NONGO	otako	oritako	etako
NORA	otara	oritara	etara
NORAINO	otaraño	oritaraño	etaraño
NONDIK	otik(an)	oritik(an)	etik(an)
NORENGAN	otan/ okenbattan	oritan/ orikenbattan	etan/ ekenbattan
NORENGANA	okengana	orikengana	ekengana
NORENGANAINO	okenganaño	orikenganaño	ekenganaño
NORENGANDIK	otik(an)	oritik(an)	etik(an)

6. IZEN MORFOLOGIA

6.2. ERAKUSLEAK

ETXALAR

Singularra

NOR	au	ori	ura
NORK	unek	orrek	arek
NORI	uneri	orreri	areri
NOREN	unen	orren	aren
NORENTZAT	unentzat/ unendado	orrentzat/ orrendako	arentzat/ arendako
NOREKIN	unekin	orrekin	arekin
NORENGATIK	unengatik(an)	orrenгатik(an)	
NORTAZ	untaz/(unetaz)	ortaz/(orretaz)	artaz/(aretaz)
NON	untan/(unetan)	ortan/(orretan)	artan/(aretan)
NONGO	untako/ (unetako)	ortako/ (orretako)	artako/(aretako)
NORA	untara(t)/ (unetarat)	ortara(t)/ (orretarat)	artara(t)/ (aretarat)
NORAINO	untaraño/ (unetaraño)	ortaraño/ (orretaraño)	artaraño/ (aretaraño)
NONDIK	untik(an)/ (unetik)	ortik(an)/ (orretik)	artik(an)/ (aretik)
NORENGAN	untan/ unenbaitan	ortan/ orrenbaitan	artan/ arenbaitan
NORENGANA	unengana(t)	orrenгana(t)	arengana(t)
NORENGANAINO	unenganaño	orrenгanaño	arenganaño
NORENGANDIK	untik/ (unengenik)	ortik/ (orrengenic)	artik/ (arengenik)

Plurala

NOR	ok	oiek	ek
NORK	ok	oiek	ek
NORI	okeri	oikeri	ekeri
NOREN	oken	oiken	eken
NORENTZAT	okentzat	oikentzat	ekentzat
NOREKIN	okin	oikin	ekin
NORENGATIK	okengatik(an)	oikengatik(an)	ekengatik(an)
NORTAZ	otaz	oitaz	etaz
NON	otan	oitan	etan
NONGO	otako	oitako	etako
NORA	otara(t)	oitara(t)	etara(t)
NORAINO	otaraño	oitaraño	etaraño
NONDIK	otik(an)	oitik(an)	etik(an)
NORENGAN	otan/okenbaitan	oitan/ oikenbaitan	etan/ekenbaitan
NORENGANA	okengana(t)	oikengana(t)	ekengana(t)
NORENGANAINO	okenganaño	oikenganaño	ekenganaño
NORENGANDIK	otik/(okengenik)	oitik/ (oikengenik)	etik/(ekengenik)

6. IZEN MORFOLOGIA

6.3. LEKUZKO ADITZONDOAK

BERA

NON	emen	or	an
NONGO	emengo	orko	ango
NORA	unat	orrat	arat
NORAINO	unaño	orraño	araño
NONDIK	emendik(an)	ortik(an)	andik(an)

6. IZEN MORFOLOGIA

6.4. PERTSONA IZENORDAINAK

ARANTZA

Pertsona izenordain arruntak

NOR	ni	i	gu	zu	zuek
NORK	nik	ik	guk	zuk	zuek
NORI	niri	iri	guri	zuri	zueri
NOREN	ner	ire	gure	zure	zuen
NORENTZAT	neretzat	iretzat	guretzat	zuretzat	zuentzat
NOREKIN	nerekin	irekin	gurekin	zurekin	zuekin
NORENGATIK	nerengatik	irengatik	gurengatik	zurengatik	zuengatik
NORENGANA	nerengana	irengana	gurengana	zurengana	zuengana
NORENGANDIK	neretik	iretik	guretik	zuretik	zuetik

Pertsona izenordain indartuak

NOR	neune	eune	bera	geune	zeune	zeurek	eurek
NORK	neunek	eunek	berak	geunek	zeunek	ziaurek	eurek
NORI	neuneri	euneri	berari	geuneri	zeuneri	ziaureri	eureri
NOREN	neunen	eunen	bere	gure	zure	zuen	eben
NORENTZAT			beretzat				ebentzat
NOREKIN			berekin				eurekin
NORENGATIK			beregatik				eurengatik
NORENGANA			beregana				eurengana
NORENGANDIK			beretik				euretik

6. IZEN MORFOLOGIA

6.4. PERTSONA IZENORDAINAK

LESAKA

Pertsona izenordain arruntak

NOR	ni	i	gu	zu	zuek
NORK	nik	ik	guk	zuk	zuek
NORI	niri	iri	guri	zuri	zueri
NOREN	ner	ire	gure	zure	zuen
NORENTZAT	neretzat	iretzat	guretzat	zuretzat	zuentzat
NOREKIN	nerekin	irekin	gurekin	zurekin	zuekin
NORENGATIK	nerengatik	irengatik	gurengatik	zurengatik	zuengatik
NORENGANA	nerengana	irengana	gurengana	zurengana	zuengana
NORENGANDIK	neretik	iretik	guretik	zuretik	zuetik

Pertsona izenordain indartuak

NOR	neune	eune	bera	geune	zeune	zeurek	eurek
NORK	neunek	eunek	berak	geunek	zeunek	zeurek	eurek
NORI	neuneri	euneri	berari	geuneri	zeuneri	zeureri	eureri
NOREN	neunen	eunen	bere	gere	zere	zeben	eben
NORENTZAT			beretzat				ebentzat
NOREKIN			berekin				eurekin
NORENGATIK			beregatik				eurengatik
NORENGANA			beregana				eurengana
NORENGANDIK			beretik				euretik

6. IZEN MORFOLOGIA

6.5. GALDETZAILEEN BIDEZ OSATUTAKO IZENORDAINAK ETA ADITZONDOAK

BERA

	EDO	-BAIT	-NAHI	I- / E-
ZER	----	zerbatt(ere) zerttere	zernai	(ezer) yaus
ZEIN	edoziñ	----	----	----
NOR	----	norbatt(ere)	----	iñor(ere)
NON	----	nunbatt(ere)	nunai	iñon(ere)
NONDIK	----	nunbattetik	nunaitik	iñondik(ere)
NORA	----	nunbattera	----	iñora
NOIZ	----	noizpatt(ere)	noiznai	iñoiz(ere)
NOLA	----	nolapattere	nolanai	iñola(ere)

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

BERA

Bizigabeak, bokalez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
ZER	esku erri zilo	esku-a erri-ya zilu-a	esku-ak/(-k) erri-yak zilua-k
ZERK	esku-k erri-k zilo-k	esku-ak/(-k) erri-yak zilu-ak/(-k)	esku-ak/(-k) erri-yak zilu-ak/(-k)
ZERI	esku-ri erri-ri zilo-ri	esku-ari/(-ri) erri-yari zilu-ari/(-ri)	esku-ekiri/(-akiri) erri-yakeri/(-yakiri) zilu-ekiri/(-akiri)
ZEREN	esku-n erri-n zilu-n	esku-an/(-n) erri-yan zilu-an/(-n)	esku-ekin(-akin erri-yakin zilu-ekin(-akin)
ZERENTZAT	esku-ntzat/-ndako erri-ntzat /-ndako zilu-ntzat/-ndako	esku-antzat/(-ntzat) erri-yantzat/-ndako zilu-antzat/(-ntzat)	esku-ekintzat/(-akintzat) erri-yakintzat/-yentzat zilu-ekintzat/(-akintzat)
ZEREKIN	esku-kin erri-kin zilu-kin	esku-akin/(-kin) erri-yakin zilu-akin/(-kin)	esku-ekin/(-kin) erri-yakin zilu-ekin/(-kin)
ZERENGATIK	esku-ngatik(an) erri-ngatik(an) zilu-ngatik(an)	esku-angatik/(-ngatik) erri-yangatik(an) zilu-angatik/(-ngatik)	esku-ekingatik/(-akingatik) erri-yakingatik zilu-ekingatik/(-akingatik)
ZEREZ	esku-z erri-z zilo-z	esku-az/(-z) erri-yaz zilu-az/(-z)	esku-etaz/(-taz) erri-yetaz zilu-etaz/(-taz)
NON	esku-tan erri-tan zilo-tan	esku-an/(-n) erri-yin/(-yan) zilu-an/(-n)	esku-etan/(-tan) erri-yetan zilu-etan/(-tan)
NONGO	esku-tako erri-tako zilo-tako	esku-ko erri-ko zilo-k	esku-etako/(-tako) erri-yetako zilu-etako/(-tako)
NORA	esku-tarat erri-tarat zilo-tarat	esku-rat erri-ra zilo-rat	esku-etarat/(-tarat) erri-yetarat zilu-etarat/(-tarat)
NORAINO	esku-taño erri-taño zilo-taño	esku-ño erri-ño zilo-ño	esku-etano/ (-taño) erri-yetano zilu-etano/(-taño)
NONDIK	esku-tik(an) erri-tik(an) zilo-tik(an)	esku-tik(an) erri-tik(an) zilo-tik(an)	esku-etik(an)/(-tik(an)) erri-yetik(an) zilo-etik(an)/(-tik(an))
ZERIK	esku-rik erri-rik zilo-rik	--	--
ZERTZAT	esku-taz erri-taz zilo-taz	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

BERA

Bizigabeak, kontsonantez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
ZER	izarr	izarr-a	izarr-ak
ZERK	izarr-ek/(-ak)	izarr-ak	izarr-ak
ZERI	izarr-eri/(-ari)	izarr-ari	izarr-akiri/(-akeri)
ZEREN	izarr-en	izarr-an	izarr-ekin(-akin)
ZERENTZAT	izarr-entzat	izarr-antzat	izarr-ekintzat/(-akintzat)
ZEREKIN	izarr-ekin	izarr-akin	izarr-ekin
ZERENGATIK	izarr-engatik(an)	izarr-angatik(an)	izarr-ekingatik/(-akingatik)
ZEREZ	izarr-ez	izarr-az	izarr-etaz
NON	izarr-tan	izarr-ian/(-in)	izarr-etan/(-tan)
NONGO	izarr-tako	izarr-eko	izarr-etako/(-tako)
NORA	izarr-tarat	izarr-erat	izarr-etarat/(-tarat)
NORAINO	izarr-tañoigo	izarr-añoigo	izarr-etañoigo/(-etañoigo)
NONDIK	izarr-tik(an)	izarr-tik(an)	izarr-etik(an)/(-tik(an))
ZERIK	izarr-ik	--	--
ZERTZAT	izarr-taz	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

BERA

Bizidunak, bokalez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
NOR	seme alaba	semi-a alaba	semi-ak/(-k) alaba-k
NORK	seme-k alaba-k	semi-ak/(-k) alaba-k	semi-ak/(-k) alaba-k
NORI	seme-ri alaba-ri	semi-ari/(-ri) alaba-ri	semi-ekiri/(-akiri) alaba-kiri
NOREN	seme-n alaba-n	semi-an/(-n) alaba-n	semi-ekin(-akin) alaba-kin
NORENTZAT	seme-ntzat alaba-ntzat	semi-antzat/(-ntzat) alaba-ntzat	semi-ekintzat/(-akintzat) alaba-kintzat
NOREKIN	seme-kin alaba-kin	semi-akin/(-kin) alaba-kin	semi-ekin/(-kin) alaba-kin
NORENGATIK	seme-ngatik(an) alaba-ngatik	semi-angatik/(-ngatik) alaba-ngatik	semi-ekingatik/(-akingatik) alaba-kingatik
NORTAZ	seme-z alaba-z	semi-az/(-z) alaba-z	semi-etaz/(-taz) alaba-taz
NORENGAN	seme-tan/(-nbattan) alaba-tan/(-nbattan)	semi-an/(-anbattan) alaba-n/(-nbattan)	semi-etan/(-ekinbattan) alab-etan/(-akinbattan)
NORENGANA	seme-nganat alaba-ganat	semi-anganat alaba-nganat	semi-ekinganat alaba-kinganat
NORENGANDIK	seme-tik(an) (seme-ngandik) alaba-tik(an) (alaba-ngandik)	seme-tik(an) (semi-angandik) alaba-tik(an) (alaba-ngandik)	semi-etik(an) (semi-ekingandik) alaba-tik(an) (alaba-ngandik)
ZERIK	seme-rik alaba-rik	--	--
NORTZAT	seme-taz alaba-taz	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

BERA

Bizidunak, kontsonantez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
NOR	gizon	gizon-a	gizon-ak
NORK	gizon-ek/(-ak)	gizon-ak	gizon-ak
NORI	gizon-eri/(-ari)	gizon-ari	gizon-akiri/(-akeri)
NOREN	gizon-en	gizon-an	gizon-ekin(-akin)
NORENTZAT	gizon-entzat	gizon-antzat	gizon-ekintzat/(-akintzat)
NOREKIN	gizon-ekin	gizon-akin	gizon-ekin
NORENGATIK	gizon-engatik(an)	gizon-angatik(an)	gizon-ekingatik/(-akingatik)
NORTAZ	gizon-ez	gizon-az	gizon-etaz
NORENGAN	gizon-tan/(-enbattan)	gizon-ian/(-anbattan)	gizon-etan/(-ekinbattan)
NORENGANA	gizon-enganat	gizon-anganat	gizon-ekinganat)
NORENGANDIK	gizon-dik/(-engandik)	gizon-dik/(-angandik)	gizon-etik/(-ekingandik)
ZERIK	gizon-ik	--	--
NORTZAT	gizon-taz	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

ARANTZA

Bizigabeak, bokalez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
ZER	esku	esku-a	esku-k
ZERK	esku-k	esku-k	esku-k
ZERI	esku-ri	esku-ri	esku-keri/-ri
ZEREN	esku-n	esku-n	esku-n/-ken
ZERENTZAT	esku-ntzat	esku-ntzat	esku-ntzat/-kentzat
ZEREKIN	esku-kin	esku-kin	esku-kin
ZERENGATIK	esku-ngatik(an)	esku-ngatik(an)	esku-ngatik/-kengatik
ZEREZ	esku-z	esku-z	esku-taz
NON	esku-tan	esku-n	esku-tan
NONGO	esku-tako	esku-ko	esku-tako
NORA	esku-tara	esku-ra	esku-tara
NONDIK	esku-tik(an)	esku-tik(an)	esku-tik(an)
ZERIK	esku-rik	--	--
ZERTZAT	esku-taz/(-z)	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

ARANTZA

Bizigabeak, kontsonantez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
ZER	izarr	izarr-a	izarr-ak
ZERK	izarr-ek	izarr-ak	izarr-ak
ZERI	izarr-eri	izarr-ari	izarr-ekeri
ZEREN	izarr-en	izarr-an	izarr-en/(-eken)
ZERENTZAT	izarr-entzat	izarr-antzat	izarr-entzat/(-ekentzat)
ZEREKIN	izarr-ekin	izarr-akin	izarr-ekin
ZERENGATIK	izarr-engatik(an)	izarr-angatik(an)	izarr-engatik/(-ekengatik)
ZEREZ	izarr-ez	izarr-az	izarr-az/(-taz)
NON	izarr-tan	izarr-in	izarr-tan
NONGO	izarr-tako	izarr-ko	izarr-tako
NORA	izarr-tara	izarr-era	izarr-tara
NONDIK	izarr-tik(an)	izarr-tik(an)	izarr-tik(an)
ZERIK	izarr-ik	--	--
ZERTZAT	izarr-taz/-az	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

ARANTZA

Bizidunak, bokalez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
NOR	seme	semi-a	semi-k
NORK	seme-k	semi-k	semi-k
NORI	seme-ri	semi-ri	semi-keri
NOREN	seme-n	semi-n	semi-n/(-ken)
NORENTZAT	seme-ntzat	semi-ntzat	semi-ntzat/(-kentzat)
NOREKIN	seme-kin	semi-kin	semi-kin
NORENGATIK	seme-ngatik(an)	semi-ngatik	semi-ngatik/(-kengatik)
NORTAZ	seme-taz	semi-z	semi-taz
NORENGAN	seme-tan/(-nbattan)	semi-n/(-nbattan)	semi-tan/-nbattan/-kenbattan
NORENGANA	seme-ngana	semi-ngana	semi-ngana/(-kengana)
NORENGANDIK	seme-tik(an)	seme-tik(an)	seme-tik(an)
ZERIK	seme-rik	--	--
NORTZAT	seme-taz/-az	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.6. IZEN ARRUNTAK

ARANTZA

Bizidunak, kontsonantez bukatuak.

	Mugagabea	Singularra	Plurala
NOR	gizon	gizon-a	gizon-ak
NORK	gizon-ek	gizon-ak	gizon-ak
NORI	gizon-eri	gizon-ari	gizon-akeri
NOREN	gizon-en	gizon-an	gizon-an/(-aken)
NORENTZAT	gizon-entzat	gizon-antzat	gizon-entzat/(-ekentzat)
NOREKIN	gizon-ekin	gizon-akin	gizon-ekin
NORENGATIK	gizon-engatik(an)	gizon-angatik(an)	gizon-engatik/(-ekengatik)
NORTAZ	gizon-ez	gizon-az	gizon-taz
NORENGAN	gizon-tan/(-enbattan)	gizon-in/(-anbattan)	gizon-tan/(-ekenbattan)
NORENGANA	gizon-engana	gizon-angana	gizon-engana/(-ekengana)
NORENGANDIK	gizon-tik	gizon-tik	gizon-tik
ZERIK	gizon-ik	--	--
NORTZAT	gizon-taz/(az)	--	--

6. IZEN MORFOLOGIA

6.7. IZEN BEREZIAK

ETXALAR

Pertsona izenak bokalez eta kontsonantez bukatuak.

	BOKALEZ	KONTSONANTEZ
NOR	Andoni	Itziar
NORK	Andoni-k	Itziarr-ek
NORI	Andoni-ri	Itziarr-eri
NOREN	Andoni-n	Itziarr-en
NORENTZAT	Andoni-ntzat/(-ndako)	Itziarr-entzat/(-endako)
NOREKIN	Andoni-kin	Itziarr-ekin
NORENGATIK	Andoni-ngatik	Itziarr-engatik
NORENGAN	Andoni-n/(-nbaitan)	Itziarr-en/(-enbaitan)
NORENGANA	Andoni-ngana(t)	Itziarr-engana(t)
NORENGANDIK	Andoni-tik/(-ngenik)	Itziarr-tik/(-engenik)

Leku izenak bokalez eta kontsonantez bukatuak.

	BOKALEZ	KONTSONANTEZ
NOR	Sunbilla	Etxelar
NORK	Sunbilla-k	Etxelarr-ek
NORI	Sunbilla-ri	Etxelarr-eri
NOREN	Sunbilla-n	Etxelarr-en
NORENTZAT	Sunbilla-ntzat/(-ndako)	Etxelarr-entzat/(-endako)
NOREKIN	Sunbilla-kin	Etxelarr-ekin
NORENGATIK	Sunbilla-ngatik	Etxelarr-engatik
NON	Sunbilla-n	Etxelarr-en
NONGO	Sunbilla-ko	Etxelarr-ko
NORA	Sunbilla-ra(t)	Etxelarr-era(t)
NORAINO	Sunbilla-ño	Etxelarr-eño/(-eraño)
NONDIK	Sunbilla-tik	Etxelarr-tik

6. IZEN MORFOLOGIA

6.7. IZEN BEREZIAK

IGANTZI

Pertsona izenak bokalez eta kontsonantez bukatuak.

	BOKALEZ	KONTSONANTEZ
NOR	Andoni	Itziar
NORK	Andoni-k	Itziarr-ek
NORI	Andoni-ri	Itziarr-eri
NOREN	Andoni-n	Itziarr-en
NORENTZAT	Andoni-ntzat/(-ndako)	Itziarr-entzat/(-endako)
NOREKIN	Andoni-kin	Itziarr-ekin
NORENGATIK	Andoni-ngatik	Itziarr-engatik
NORENGAN	Andoni-n/(-nbattan)	Itziarr-en/(-enbattan)
NORENGANA	Andoni-ngana	Itziarr-engana
NORENGANDIK	Andoni-tik	Itziarr-tik

Leku izenak bokalez eta kontsonantez bukatuak.

	BOKALEZ	KONTSONANTEZ
NOR	Sunbilla	Etxelar
NORK	Sunbilla-k	Etxelarr-ek
NORI	Sunbilla-ri	Etxelarr-eri
NOREN	Sunbilla-n	Etxelarr-en
NORENTZAT	Sunbilla-ntzat/(-ndako)	Etxelarr-entzat/(-endako)
NOREKIN	Sunbilla-kin	Etxelarr-ekin
NORENGATIK	Sunbilla-ngatik	Etxelarr-engatik
NON	Sunbilla-n	Etxelarr-en
NONGO	Sunbilla-ko	Etxelarr-ko
NORA	Sunbilla-ra	Etxelarr-era
NORAINO	Sunbilla-ñigo	Etxelarr-eñigo/(-eraño)
NONDIK	Sunbilla-tik	Etxelarr-tik

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.1. SARRERA. ADITZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

7.1.1. Aditz nagusiaren aspektua

Gauza jakina da partizipioa *-n* letraz egiten duten aditzek (*egon, egin, eman, iraun...*) ekialdeko euskalkietan geroaldi perifrastikoa egiteko *-ko* marka hartu beharrean *-en* hartzen dutela: *egonen, eginen, emanen, iraunen...* Eta gure hizkeran honela gauzatzen dira ia beti. *Hil* aditzak bi modutara egiten du: *illen* eta *illko*.

Izan eta *egon* aditzek bertzalde, maizago hartzen dute *izandu* eta *egondu* forma partizipioa gauzatzeko *izan* eta *egon* forma baino:

- Gero *egondu* da ogeita bos urte ola itsirikan. (Arantza)
- Ta emen frailik *izandu* die. Bai, bai *zandu* die iru anai fraile. (Bera)
- Naiz ez tuten labrantzako abildaderik *izandu* ... (Bera)
- Gero *egondu* zen gelditua ez takit seguro zenbat urte. (Etxalar)
- Deportista on samarra *izandu* naiz. (Igantzi)
- Gure garayin kendua *egondu* zen. (Lesaka)

Aspektu burutu gabea nahiko maiz partizipioaren gainean egiten da, batez ere aditzoina silaba bakarrekoa denean: *asitzen, utzitzen, sartutzen, kendutzen, billutzen, jositzen...*:

- Erriako gizonak artu zuten akuerdia ura *kendutzeko*. (Bera)
- Ez ta iñor aitzen ta pena da *utzitzia*. (Bera)
- Nekutzen tzenian txakurrari *utzitzen* zion bere karga. (Bera)
- Ematten duzu buelta gero *yositzeko* ta nik uñ enebratzeko. (Bera)
- Gainkaldetikan umedade aundeya *sartutzen* tzen. (Etxalar)
- Nai zuten pues, zerbattere lanin *asitzia*. (Igantzi)
- Arat *billutzen* dire zakukin atei bar dutenak. (Lesaka)
- Lenogo Epifanion kuadra zar artan *yositzen* genittun. (Lesaka)
- Urrengo egunin *billutzen* nun belarra dena. (Lesaka)

Halere ez da beti partizipioaren gainean egiten:

- Asten* dire polliki-polliki..., biño lenogo biorrak ta oyek etziren *sartzen*. (Bera)
- Bior karrua delik ta aldapa ttikinian bielka *asten* tzen. (Bera)

Batzuetan hiltun berak eta perpaus berean bi erak erabiltzen ditu:

- Jardiñeko belarra *mozten* du ederki, *moztutzen* du ederki jardiñeko belarra. (Arantza)
- Baserritara yuan tragu bat *artzeko*, mai batin *yarritzeko*, dantzan ibiltzeko. (Arantza)

Hurrengo atalean ([ikus 7.1.2 puntua](#)) erranen dugun bezala, ahalera ia beti *ahal izan*-en bidez egiten da. Kasu honetan lagun egiten dion aditzaren aspektua *-t(z)en* burutu gabea erabili ohi da Bortzirietan, orainaldia, iragan burutugabea eta geroaldia gauzatzekoan: *hurbiltzen ahal da / ez da hurbiltzen ahal; hurbiltzen ahal zen / ez zen hurbiltzen ahal; erosten ahalko du / ez du erosten ahalko*. Iragana burutua denean, ordea, partizipio burutua erabiltzen da: *ibili ahal izan da / ez da ibili ahal izan; ekarri ahal izan du / ez du ekarri ahal izan*.

- Ordun *itten* al dire kuadrillak partitu. (Etxalar)
- Nagusik nai balin badu *eitten* al du bigarren klasekua, (Etxalar)
- Eguldik laguntzen badu *izatten* al da egun bat polita. (Igantzi)

Baldintza irrealari dagokionez erregulararki geroaldiko aspektua erabili ohi da: *etorriko balira(ke), erosiko balute*. Baina batzuetan aspektu burutu gabea ere entzuten da: *joaten balira(ke), ekartzen balute(ke)*.

Aditz arazleetan erregulararki aditzoinari lotzen zaio *arazi (>azi)* batez ere partizipioa *-tu* duten aditzetan: *billazi, kantazi, saltazi, deskantsazi, hase-rrezi...*

- Ta laugarrena re *eramazi* nai zuten nolapattere. (Bera)
- Idiyak *deskantsazi* ta illunabar arte lo pixko bat in gunun an. (Bera)

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.1. SARRERA. ADITZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Baina aditzoina silaba bakarrekoa denean, partizipioari lotzen zaio: *hartu(a)zi, billu(a)zi, sartu(a)zi, galdu(a)zi...* Baina, azken honek *debekatu* adierazten duenean: *galazi*.

Ez ordea, silaba bakarreko sinkopa dela medio bihurtu bada: *pazi (>parazi), tizi (>tirazi)...*

Partizipioa *-i* atzizkiak egiten dutenetan gehienetan partizipioari eransten zaio *arazi: etorriazi, ikusiaz, ekarriazi...*

Paletekin *yautsiaz* usua al den guziya. (Arantza)

Indikatibozko adizkietan batzuetan aditzoina erabiltzen da:

Bueno, ori re eskutara *tor* tzit... Ori gustatzen tzit. (Arantza)

Guk *kar* ginttun bi illak batian ta bertzin erittu bat. (Bera)

Ta *ikus* dut... oi maleta! Biño kordionak altxatzeko maleta! (Lesaka)

Aginterako adizkietan erregularki aditzoina da nagusi: *(e)kar tzue* (indikatiboa: *(e)karri zue*), *kanta zak, paga zan, sar zu, urbill zitte/xtia...*

Subjuntibo adizkiak hagitx gutitan erabiltzen dira, denez ere 3. pertsonako erregu edo desira adierazten dutenak, eta orduan normalean aditzoina erabiltzen da: *eros zala, urbil daila, ken tzatela, konpon dittezela*.

7.1.2. Ahalera

Aitzineko puntuan erran bezala, ahalera ia beti *ahal izan*-en bidez egiten da. Ahalerako *-kedun* adizkiak ia-ia ez direla erabiltzen erran genezake, 3. pertsonako forma inpersonalak ez badira: *errantteke, intteke, erostteke, ez-tatteke yuan...* :

Bai ta gero *intteke* orrela. (Arantza)

Edozin gauz *eintteke*. (Arantza)

Biño ura zen... bueno gauz bat... *eztetteke* erran. (Lesaka)

Noizean behin lehenengo pertsonako batzuk ere erabiltzen dira (*yuan gattezke...*), baina gutitan:

Lasai aitzen naiz, biño orrek egindako lanak ez *tazket* nik egin. (Bera)

Bertzetan ez *tazket* ari. (Arantza)

Ezezkoetan ohikoena *ahal izan* erabiltzea da, *ez naiz yuaten ahal, ez dut egiten ahal...*, nahiz eta *ezin izan* ere erabiltzen den:

Ez ta yaus *egitten al*, zertaz arront ukertua dago. (Bera)

Nik ez tut merke *itten al*. (Arantza)

Bi kuadrilla *ezin* tziren ibilli auzo batin. (Arantza)

7.1.3. Aditz trinkoak

Bortzirietako hizkeran normal erabiltzen dira *joan, ibili*, eta *egon* aditzen trinkoak. *Etorri* aditza, aldiz, ezagutzen bada ere eta erregu edo desira adierazteko erabili ere (*datorla...*), indikatibozko formak hagitx gutitan entzuten dira arrazoi ximple batengatik, alegia aditz honen puntukaritasuna adierazteko *heldu* aditza erabili ohi delako: *eldu da (=dator), eldu zen (=zettorren)*.

Eldu den astirtin bada bertze billera bat zortzitan. (Igantzi)

Jakin eta *eduki* aditzenak normal erabiltzen dira, baina *eraman* eta *ekarri* aditzenak erran genezake gero eta gutiago entzuten direla, eta entzuten direnean, gehienetan, 3. pertsonakoak izaten dira.

Aditz trinkoen iraganari dagokionez, *a* bokala ageri zaigu *e*-ren orde: *nagon, zauden, nabillen, zabilzan, bazakin, banaukan*, eta abar:

Frontoya emen *zagon* gure itxe parian. (Bera)

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.1. SARRERA. ADITZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Uań ezin arrapatuz *zabiltzan* nunbattere. (Bera)

Soldadu nitzenian erdaraz ez *nakin*. (Bera)

Azkenik ez dugu aipatu gabe uzten ahal Beran eta Etxalarren (ez, ordea, Lesakan, Igantzin, Arantzan) adizki trinkoekin batera Iparraldean erabiltzen dituzten forma perifrastikoak ere erabiltzen dituztela puntukaritasuna adierazteko, *joan*, *ibili*, *eraman* eta *ekarri* aditzekin, hala nola *yuaki naiz* (= *noa*), *yuaki nitzen* (= *nindoan*), *ibilki naiz* (= *nabil*), *ekarki du* (= *dakar*), *ekarki zu(e)n* (= *zekarren*), *eramaki zu(e)n* (= *zeraman*).

Or yarri biar da akautzera *juaki delikan*. (Bera)

7.1.4. Aditz sistemen nahasmena

Gauza jakina da euskalki anitzetan *nor-nori-nork* adizkiak erabiltzen direla *nor-nork* adizkien ordez eta iraganean bereziki: *ikusi nau* erran beharreak *ikusi dit*, edo *ekarri gintuen* erran beharreak *ekarri zigun*. Nahasmen hau hagitz zabaldua dago, batez ere iraganeko formetan.

Ia denak ikusten *diate* eizin ttikitikan. (Arantza)

Baina era berean alderantzizko nahasmena suertatzen da Beran, Etxalarren eta Lesakan, hots, (*zerbait*) *eman nau* erraten dela *eman dit* erran beharreak, edo (*zerbait*) *erosi gattu*, *erosi digu* erran beharreak. Dena dela, nahasmen hau oraineko 1. eta 2. pertsonetan (singularrean eta pluralean) egiten da gehien. Iraganean gutiago.

Kontatuko *zattut*... ze ikaria eman zian! Egun batian... (Bera)

Biño biajirik aundina uań erranen *zattut*. (Bera)

Zanen dire lagun geigo au kusko tenak eta erranen *naute* non ai den Joxe Lantx lanin uańikan. (Bera)

Bueno zuk ikasi bar zuna da nik erran *zattuten* ori, e? (Bera)

Erratten *zattut*, egundaño aittu bertzerik. (Bera)

Bira bertze gauz bat erran bar *zaitut*... (Etxalar)

Zenbaitetan *nor-nori-nork* eta *nor-nori* adizkiak nahasten dira:

Bueno *etzigun* batere inporta. (Lesaka)

7.2 ADITZ LAGUNTZAILEAK

BERA

7.3 ADITZ TRINKOAK

LESAKA

(*ikus ondoko taulak*)

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor* indikatiboa

	ORAINA		IRAGANA	
NI	naiz	nauk/naun	nitzen	nioken/nionen
HI	yaiz		(y)itzen	
HURA	da	duk/dun	zen	zuken/zunen
GU	gara	gattuk/gattun	giñen	gattuken/gattunen giñuken/giñunen
ZU	zara/zera		ziñen	
ZUEK	zate		ziñeten	
HAI EK	dire	ttuk/ttun	zi(r)en	zittuken/zittunen

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nori* indikatiboa, oraina

	HURA		HAIEK	
NIRI	zait	zi(r)ak/zi(r)an	zkit	zizkiak/zizkian
HIRI	zaik/za(i)ñ		zkik/zkiñ	
HARI	zayo	ziok/zion	zkiyo	zizkiok/zizkion
GURI	zaigu	ziguk/zigun	zkigu	zizkiguk/zizkigun
ZURI	zaitzu		zkizu	
ZUEI	zaitzue		zkizue	
HAIEI	zaio(te)	ziok/zion	zkiyote	zizkiotek/zizkioten

Aditz laguntzailea: *nor-nori* indikatiboa, iragana

	HURA		HAIEK	
NIRI	zitzaidan za(i)tten	ziaken/zianen	zitzazkiran zazkitten	zizkiaken/zizkianen
HIRI	zaiken/zaiñen		zazkiken/zazkiñen	
HARI	zayon	zioken/zionen	zazkion/zkion	zittioken/zittionen
GURI	zaigun	ziguken/zigunen	zazkigun	zittigukun/zittigunen
ZURI	zaitzun		zazkitzun	
ZUEI	zaitzuen		zazkitzuen	
HAIEI	zayoten	zioken/zionen	zazkion	zittioken/zittionen

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nork* indikatiboa, oraina

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NI	---	nauk	naun	nau niak/zi(r)ak nian/zi(r)an	---	nauzu	nauzue	naute niatek/ziratek niatek/ziratek
HI (g)	yaut	---	---	yau	yaugu	---	---	yaute
HI (e)	yaut	---	---	yau	yaugu	---	---	yaune
HURA	du di(a)t (di)ñat	duk	dun	du dik diñ	dugu diguk (di)ñagun	duzu	duzue	dute tek ten
GU	---	gattuk	gattun	gattu gattik gattin	---	gattuzu	gattuzue	gattuzte gattiztek gattizten
ZU	zattut	---	---	zattu	zattugu	---	---	zattuzte
ZUEK	zattuztet	---	---	zattuzte	zattuztegu	---	---	zattuzte
HAIEK	ttut tti(a)t ttiñat	ttuk	ttun	ttu ttik ttin	ttugu ttiguk ttiñagun	ttuzu	ttuzue	ttuzte ttiztek ttizten

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nork* indikatiboa, iragana

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAI EK
NI	---	nauken/ yiraken	naunen/ yanen	nauen (niñuen) niaken nianen	---	nauzun/zi- razunun/zirazun	nauzuen zirazuen	nauten (ziateken) niateken (ziateken) niateken (ziateken)
HI (g)	yauten/nien	---	---	yauen	yagun	---	---	yauten
HI (e)	yauten/nienen	---	---	yauen	yagun	---	---	yaunen
HURA	nuen ni(k)en niñen	zuken	zunen	zu(e)n zien ziñen	gunu(e)n ginien giniñen	zunuen	zunuten	zuten/zten ziteken zitenen
GU	---	gattuken/ziguken	gattunen/yagunen	gattu(e)n gattiken gattiñen	---	gattuzun	gattuzuen	gattuzten/giñuzten gattizteken gattiztenen
ZU	zatturan/ nitzun	---	---	zattuen/ zizun	zattugun	---	---	zattuzten/ zizuten
ZUEK	zattuzten/ nizuen	---	---	zattuzten	zattuztegun/ genizuen	---	---	zattuzten
HAI EK	nittuen nittien nittinen	zittuken	zittunen	zittuen/xttu(e)n zittien zittiñen	genittu(e)n genittien genittinen	zenittuen	zenittuzten	zittuzten/zuxten zittizteken zittiztenen

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nori-nork* indikatiboa, oraina, singularra

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	---	dirak	diran	dit zirak ziran	---	dirazu	dirazue	dirate ziratek ziraten
HIRI (g)	di(a)t	---	---	dik	diguk	---	---	ditek
HIRI (e)	diñat	---	---	din	diñagun	---	---	diten
HARI	diot ziot ziñat	diok	dion	dio ziok zion	diogu zioguk ziogun	diozu	diozue	diote ziotek zioten
GURI	---	diguk	digun	digu ziguk zigun	---	diguzu	diguzue	digute zigutek ziguten
ZURI	dizut	---	---	dizu	dizugu	---	---	dizute
ZUEI	dizuet	---	---	dizue	dizuegu	---	---	dizue
HAIEI	diot ziot ziñat	diok	dion	dio ziok zion	diogu zioguk ziogun	diozu	diozue	diote ziotek zioten

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nori-nork* indikatiboa, oraina, plurala

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	---	ttirak	ttiran	ttit zittirak zittiran	---	ttirazu	ttirazue	ttirate ttiratek ttiraten
HIRI (g)	ttit	---	---	ttik	ttiguk	---	---	ttiztek
HIRI (e)	ttiñat	---	---	ttin	ttiñagun	---	---	ttizten
HARI	ttiot zkiot zittionet	ttiok	ttion	ttio zittiok zittion	ttiogu zittioguk zittiogun	ttiozu	ttiozue	ttiozte zittiotek zittioten
GURI	---	ttiguk	ttigun	ttigu zittiguk zittigun	---	ttiguzu	ttiguzue	ttigute ttiguztek ttiguzten
ZURI	ttizut	---	---	ttizu	ttizugu	---	---	ttizute
ZUEI	ttizuet	---	---	ttizue	ttizuegu	---	---	ttizue
HAIEI	ttiot zittiot zittioñat	ttiok	ttion	ttio zittiok zittion	ttiogu ttiguk ttigun	ttiozu	ttiozue	ttiozte zittiotek zittioten

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nori-nork* indikatiboa, iragana, singularra

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	---	ziaken	zianen	ziran ziraken ziranen	---	zirazun	zirazuen	ziraten ziateken ziatenen
HIRI (g)	ni(k)en	---	---	zien	genien	---	---	ziteken
HIRI (e)	niñen	---	---	ziñen	geniñen	---	---	zitenen
HARI	nion nioken nionen	zioken	zionen	zion zioken zionen	genion/ginion genioken genionen	zenion	zenioten	zioten zioteken ziotenen
GURI	---	ziguken	zigunen	zigun ziguken zigunen	---	ziguzun	ziguzuen	ziguten ziguteken zigutenen
ZURI	nizun	---	---	zizun	genizun	---	---	zizuten
ZUEI	nizuen	---	---	zizuen	genizuen	---	---	zizueten
HAIEI	nion nioken nionen	zioken	zionen	zion zioken zionen	genion/ginion genioken genionen	zenion	zenioten	zioten ziteken zitenen

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: *nor-nori-nork* indikatiboa, iragana, plurala

	NIK	HIK (g)	HIK (e)	HARK	GUK	ZUK	ZUEK	HAIEK
NIRI	---	zittiaken	zittianen	zittiran zittiraken zittiranan	---	zittirazun	zittirazuen	zittiraten zittirateken zittiratenen
HIRI (g)	nittiken	---	---	zittiken	genittin	---	---	zittiteken
HIRI (e)	nittiñen	---	---	zittiñen	genittinen	---	---	zittitene
HARI	nittion nittioken nittionen	zittioken	zittionen	zittion zittioken zittionen	genittion genittioken genittionen	zenittion	zenittioten	zittioten zittioteken zittiotenen
GURI	---	zittiguken ttiguken	zittigunen ttigunen	zittigun zittiguken zittigunen	---	zittiguzun	zittiguzuen	zittiguten zittiguteken zittigutene
ZURI	nittizun	---	---	zittizun	genittizun zittizugun	---	---	zittizuten
ZUEI	nittizuen	---	---	zittizuen	genittizuen	---	---	zittizuen
HAIEI	nittion nittioken nittionen	zittioken	zittionen	zittion zittioken zittionen	genittion genittioken genittionen	zenittion	zenittioten	zittioten zittioteken zittiotene

Aditz laguntzailea: *nor eta nor-nork* subjuntiboa, oraina

	NOR	NOR-NORK	
		HARK	HAIEK
HURA	daila	(de)zala	(de)zatela
HAIEK	dizila		detzatela

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

BERA

Aditz laguntzailea: agintera

NOR	
HI	adi
ZU	xtia
ZUEK	zizte

NOR-NORK				
	HIK (g)	HIK (e)	ZUK	ZUEK
NI	nazak	nazan	nazazu	nazazue
HURA	zak	zan	(za)zu	(za)zue
GU	gaitzak	gaitzan	gaitzazu	gaitzazue
HAIEK	zik	zin	zizu	zizue

NOR-NORI-NORK				
	HIK (g)	HIK (e)	ZUK	ZUEK
NIRI	zirak/zittirak	ziran/zittiran	zirazu/zittirazu	zirazue/zittirazue
HARI	ziok/zittiok	zion/zittion	ziozu/zittiozu	ziozue/zittiozue
GURI	---	---	iguzu	iguzue
HAIEI	ziok/zittiok	zion/zittion	ziozu/zittiozu	ziozue/zittiozue

7.3. ADITZ TRINKOAK

LESAKA

Aditz trinkoak: EGON.

	ORAINA		IRAGANA	
NI	nago	niok nion	nagon	nioken nionen
HI	yago		yagon	
HURA	dago	ziok zion	zagon	zioken zionen
GU	gaude	gaudek / gaudezik gauden / gaudezin	gauden	gaudeziken gaudezinen
ZU	zaude		zauden	
ZUEK	zaute		zaudeten	
HAIEK	daude	ziozik / zaudezik ziozin / zaudezin	zauden	zaudeziken zaudezinen

Aditz trinkoak: IBILI.

	ORAINA		IRAGANA	
NI	nabilla	nabillak nabillan	nabillan	nabillaken nabillanen
HI	yabilla		yabillan	
HURA	dabilla	zabillak zabillan	zabillan	zabillaken zabillanen
GU	gabiltza	gabiltzak gabiltzan	gabiltzan	gabiltzaken gabiltzanen
ZU	zabiltza		zabiltzan	
ZUEK	zabiltzate		zabiltzaten	
HAIEK	dabiltza	zabiltzak zabiltzan	zabiltzan	zabiltzaken zabiltzanen

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.3. ADITZ TRINKOAK

LESAKA

Aditz trinkoak: JOAN

Oraina

NI	nuaye (banuye)	nuayek (baniyek/banuyek) nuayen (baniyen/banuyen)
HI	guaye (baguye)	
HURA	duaye (baduye)	zuayek (baziyek/bazuyek) zuayen (baziyen/bazuyen)
GU	guazi (baguzi)	guazik (bagizik/baguzik) guazin (bagizin/baguzin)
ZU	zuazi (bazuzi)	
ZUEK	zuazte	
HAIEK	duazi (baduzi)	zuazik (bazizik/bazuzik) zuazin (bazizin/bazuzin)

Iragana

NI	nuayen (banuyen)	nuayeken (baniyeken/banuyeken) nuayenen (baniyenen/banuyenen)
HI	guayen (baguyen)	
HURA	zuayen (bazuyen)	zuayeken (baziyeken/bazuyeken) zuayenen (baziyenen/bazuyenen)
GU	guazin (baguzin)	guaziken (bagiziken/baguziken) guazinen (bagizinen/baguzinen)
ZU	zuazin (bazuzin)	
ZUEK	zuazten (bazuzten)	
HAIEK	zuazin (bazuzin)	zuaziken (baziziken/bazuziken) zuazinen (bazizinen/bazuzinen)

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.3. ADITZ TRINKOAK

LESAKA

Aditz trinkoak: JAKIN

Oraina

	HURA		HAIEK	
NIK	dakit	zekit zekiñet	dazkit	zezkit zezkiñet
HIK (g)	dakik		dazkik	
HIK (e)	dakin		dazkin	
HARK	daki	zekik zekin	dazki	zezki zezkin
GUK	dakigu	zekigu zekiñegu	dazkigu	zezki zezkiñegu
ZUK	dakizu		dazkizu	
ZUEK	dakizue		dazkizue	
HAIEK	dakite	zakitek zakiten	dazkite	zezkiten zezkiten

Iragana

	HURA		HAIEK	
NIK	nakin	nakiken nakinen	nazkin	nazkiken nazkinen
HIK (g)	yakiken		yazkiken	
HIK (e)	yakiñen		yazkinen	
HARK	zakin	zakiken zakiñen	zazkin	zazkiken zazkiñen
GUK	genekin	genekiken genekinen	genazkin (banazkigun)	genazkiken genazkinen
ZUK	zenakin		zenazkin	
ZUEK	zenakiten		zenazkiten	
HAIEK	zakiten	zakiteken zakitenean	zazkiten	zazkiteken zazkitenean

7.3. ADITZ TRINKOAK

LESAKA

Aditz trinkoak: EDUKI

Oraina

	HURA		HAIEK	
NIK	daukat	zaukat zaukanet	dauzkat	zauzkat zauzkañet
HIK (g)	daukak		dauzkak	
HIK (e)	daukan		dauzkan	
HARK	dauka	zaukak zaukan	dauzka	zauzkak zauzkan
GUK	daukagu	zaukagu zaukiñagu	dauzkagu	zauzkagu zauzkiñagu
ZUK	daukazu		dauzkazu	
ZUEK	daukazue		dauzkazue	
HAIEK	daukate	zaukatek zaukaten	dauzkate	zauzkatek zauzkaten

Iragana

	HURA		HAIEK	
NIK	naukan	naukaken naukanen	nauzkan	nauzkaken nauzkanen
HIK (g)	yaukaken		yauzkaken	
HIK (e)	yaukanen		yauzkanen	
HARK	zaukan	zaukaken zaukanen	zauzkan	zauzkaken zauzkanen
GUK	ganaukan	ganaukaken ganaukanen	ganauzkan	ganauzkaken ganauzkanen
ZUK	zanaukan		zanauzkan	
ZUEK	zanaukaten		zanauzkaten	
HAIEK	zaukaten	zaukateken zaukatenen	zauzkaten	zauzkateken zauzkatenen

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.4. ADITZ ATZIZKIAK

Gure hizkeran oraintsu arte hitzetik hortzera erabili izan diren hiru aditz atzizki aipatu nahi ditugu hemen: *-ki*, *-katu/-ketu* eta *-gogo*. Gaur egun gazte eta haurren artean anitz murrizten ari da aditz atzizki hauen erabilera, edo, okerrago dena, *-ki* atzizkiaren kasuan bereziki, gaizki erabiltzen hasi dira.

7.4.1. -KI

Aditz atzizki hau aditzoinari lotzen zaio eta ez partizipioari, eta forma trinkoak dituzten aditzek edo puntukaritasuna adierazten dutenek onartzen dute. Gurean honako hauek: *a(r)iki*, *egoki*, *elduki*, *ibilki*, *ageriki*, *izaki* (izan eta *ukan*-en adieretan), *yuaki*, *iduki(ki)*, *ekarki*, *eramaki*, *jakinki*, *biziki* eta *naiki*.

Hiru erabilera ditu aditz atzizki honek:

7.4.1.1. Aditz trinkoen orainaldi edo iraganaldiko aspektu puntukaria adierazteko, forma trinkoen orde forma konposatuan erabiltzen dena: *ekarki dut = dakart*. Erabilera hau bakarrik Beran eta Etxalarren aurkitu dugu eta lau aditz hauetan soilik: *ibili* (*ibili* eta *erabili*-ren bi adieretan), *joan*, *ekarri* eta *eraman*:

Baserritik *ekarki* zuen traktoria rebisua eiteko. (Etxalar)

Plazara *joaki* naiz Olentzero ikusterat. (Bera)

7.4.1.2. Agurtzeko edo diosal egiteko erabiltzen duguna: *ze*, *ibilki?* = *zer*, *bazabiltza?*; *egoki?*, *egoki?* (= *bazaudete?*, *bazaudete?*); *i ere aiki?* (= *hi ere ari haiz?*). Bigarren erabilera hau herri guzietan ohikoa da, eta gutienez *a(r)iki*, *egoki*, *elduki*, *ibilki* eta *joaki* ibiltzen dira:

-Egoki? Egoki? (= *bazaudete? bazaudete?* Edota *egonean? egonean?* adierazteko)

-Bai, ta zu ibilki? (= zu ere *bazabiltza?* adierazteko) (Arantza)

7.4.1.3. Erabilera hanpatzailea. Gauza jakina da perpaus batzuei indar berezia eman nahi diegunean, intonazioaz gainera erabiltzen dugun baliabideetako bat aditz laguntzailea isiltzea edo ezabatzea izaten dela. Adibide batzuen bidez hobeki ikusiko dugu:

Ta erran ginion [komandanteari] ta aitz ongi *artu!* (Bera)

A bai! Iñen dit bai! Ta berak kisu labia *iñ!* (Bera)

Adibide hauetan ikusten ahal dugu aditz laguntzailea ezabatzearekin batera hanpadura adierazgarri eta ñabardura berezia hartzen duela gaztelaniaz 'resulta que' edo adieraziko lukeena.

Orain arte ikusi ditugun adibideak forma trinkorik ez duten aditzenak izan dira. Baina aditz hauekin ere gauza bera egiten ahal dugu:

Autoa itxe ondun zatten zunun ta zu oñaz *yuaten* beti! (Igantzi)

Gertatzen dena da, forma trinkoa duten aditzek aspektu puntukaria dutenean (orainaldi nahiz iraganaldikoa), mendebaldeko euskalkietan partizipioa erabiltzen dutela (aditz laguntzailerik gabe), forma trinkorik ez duten aditzetan bezalaxe, hanpadura edo ñabardura berezi hori eman nahi diotenean. Gure hizkeran, ordea, aspektu puntukaria denean *-ki* atzizkia eransten diogu aditzoinari. Hona hemen Atxagaren, adibide batzuk:

Nor izango ta behia *izan*. Denak berarekin ahaztuta *egon* nonbait.⁸

Baina aurreneko behi hura ergela *izan*, eta gure mordoxka zenbatekoa zen *gal-detu* ez⁹

Ordea, artean jaioberria *izan*, eta ezinezkoa egin zitzaidan maldizio zatar bat aurkitzea.¹⁰

8 ATXAGA, Bernardo. 1991. *Behi euskaldun baten memoriak*. Arre: Pamiela. 34. or.

9 Ib., 35. or.

10 Ib., 40. or.

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.4. ADITZ ATZIZKIAK

Jakina, umea *izan* eta artean ez *jakin* munduan hizkuntza desberdin asko zeudenik.¹¹

Edota har ditzagun Koldo Zuazoren bertze adibide hauek:

Eta horretarako, nonbait, euskalkiak ez *izan* behar bezain egokiak, ez *izan* behar bezain jasoak¹²

Baina, nonbait, “merkealdia” ez *izan* nahikoa jaso eta modernoa¹³

“Sakabanaketaz landara” eta “isolamendua pairatu” jasoagoak eta jantziagoak *izan* “sakabanatuta edukitzeaz gainera” eta “bakarketa eduki” baino¹⁴

Gure eskualdeetako hizkeretan *-kidun* atzizkien bidez emanen genituzke letra etzanaz markatu ditugun partizipio horiek, forma trinkoak dituzten aditzak izateaz gain, testuinguru horietan aspektu puntukaria dutelako. Horrela, bada, Atxagarenak:

Nor izanen ta behia *izaki*. Denak berarekin ahaztuta *egoki* nonbait.

Baina aurreneko behi hura ergela *izaki*, eta gure mordoxka zenbatekoa zen *galdetu* ez Ordea, artean jaioberria *izaki*, eta ezinezkoa egin zitzaidan maldizio zatar bat aurkitzea.

Jakina, umea *izaki* eta artean ez *jakinki* munduan hizkuntza desberdin asko zeudenik.

Eta Koldo Zuazorenak:

Eta horretarako, nonbait, euskalkiak ez *izaki* behar bezain egokiak, ez *izaki* behar bezain jasoak.

Baina, nonbait, “merkealdia” ez *izaki* nahikoa jaso eta modernoa.

“Sakalbanaketaz landara” eta “isolamendua pairatu” jasoagoak eta jantziagoak *izaki* “sakabanatuta edukitzeaz gainera” eta “bakarketa eduki” baino.

11 Ib., 47. or.

12 ZUAZO, Koldo. 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania. 138 or.

13 Ib., 139. or.

14 Ib., 141. or.

Horregatik, bada, *-ki* aditz atzizkia erabili ahal izateko beharrezkoak dira aipatutako bi baldintzak, hots, perpausa hanpatua izatea eta puntukaritasuna adieraztea. Hortaz lehenbailehen zokoratu beharra dago azken boladan gero eta gehiago zabaltzen ari den *izaki*-ren erabilera *izanik* edo gaztelaniazko ‘siendo’ adieran ematen dena eta gure eskualdean adiera horretan orain arte erabili izan ez dena. Dударик ez, Azkuerenetik hasita, hiztegiek ere izan dute erabilera oker honetan bere eragina. Izan ere, *izanik* ematen baitute *izaki*-ren baliokidetzat, eta baliokideren bat ematekotan *izan* eman beharko bailukete eta ez *izanik*. *Elhuyarek* eskoletarako ateratako hiztegiak errate batera honela dio: *Izaki: siendo, estando, teniendo. Ni zure ondoan izaki lasai egon zaitezke = estando yo a tu lado puedes estar tranquilo*. Hain zuzen ere, ematen duen adibide bakarra oker ematen du, hor *izanik* behar baitu, baina ez *izaki*.

Euskaltzaindiaren hiztegiaren azken argitalpenak sartu du gure euskalkian erabiltzen dugun puntukaritasun hau *izaki* hitzaren barnean.

Gurean adiera honetan erabiltzen diren *-kidun* aditzak honako hauek dira: *a(r)iki, egoki, elduki, ibilki, ageriki, izaki (izan eta ukan-en adieretan), yuaki, ekarki, eramaki* eta *jakinki*. Gutiago *iduki(ki), biziki* eta *naiki*.

7.4.2. -KATU / -KETU

Aditz atzizki honen hedadura geografikoa *-ki*-rena baino anitzez murriztagoa da. Eusebio Etxalarkoak dio Bidasoko herrietan Hondarribiraino erabiltzen dela. Guk garbi daukagu gurean ohikoa izan dela, eta izaten segitzen duela adineko pertsonen artean gutienez. Gazteen artean guti entzuten da eta hurrek badirudi ez dutela ezagutu ere egiten.

7. ADITZ MORFOLOGIA

7.4. ADITZ ATZIZKIAK

Bortzirietan bi aldaerak erabiltzen dira, *-katu* eta *-ketu*, baina agian gehiago *-ketu*. Gramatiketan ez da atzizki honen aipamenik egiten, behar bada hedadura murrizta duelako. Halere, Plácido Mujikak bere *Afijos* liburuxkan¹⁵ sartu zuen, eta honela dio:

“-**KETU** (sufijo verbal) = *sober llegar a* (usado en Bera, Echalar...). Ej.: Ikusi**KETU** dut or lenago erbia = *ahí he llegado a ver antes liebre*. Ori aditu**KETU** nion aita zen-ari = *he solido oir eso al difunto padre*. Oriyek zelayan, zabaliyan utzi**KETU** gaituzte = *esos nos han solido dejar a la luna de Valencia* (Euskal-Esnalea 1914, 20).”

Ikus daitekeenez, partizipioari lotzen zaio *-katu* / *-ketu*, eta ez aditzoi-nari, eta bertze hizkera batzuetan *izan*-ek hartzen duen adiera bera du, hala nola, *ikusi izan dut or lehenago erbia* edo *ori aditu izan nion aita zenari...*

Ta nola zen ola eña, soldaduk *einkatuk*, ta nola ziren planuk... (Bera)
Ni arittu naiz orrekin ote xetzen; bai, bai, *aittuketu* gara gu. (Bera)
Ni enaiz beñere *arittuketu* [bertsotan]. (Bera)
Erriyin *ibilkatu* gara urtezar arrats batin. (Arantza)

Halere, *-katu* / *-ketu* atzizkiaz gain *izan* ere erabiltzen da Bortzirietan. Eta zenbaitetan *izan* gehi *-katu* erredundantzia ere gertatzen da.

7.4.3. -GOGO

Atzizki hau ere aitzinekoa bezala partizipioari lotzen zaio: *joangogo*, *erosigogo*, *ekarrigogo*, eta abar. Honen hedadura ere murrizta dela iduri du, baina gurean ohikoa da. Hona hemen bi adibide:

Zure etxera joangogo dut = zure etxera joateko asmoa dut, joatea pentsatzen dut.
Auto hori erosigogo dut = auto hori erosteko asmotan nabil, erostea pentsatzen dut.

Adiera aldetik garbi dago ez direla *joateko gogoa dut* edo *erosteko gogoa dut* esaldien baliokideak. Elkartutako aditzari gogoarena baino gehiago asmoaren ñabardura eransten dio, aditzaren ekintza gauzatzeko erabakia hartua edo izanen balu bezala.

Eldu den urtian tillatua *moldatugoo* dut, okerrikan suertzen ez pada. (Bera)

15 MUGICA, Plácido. 1965. “Afijos vascos”. *Diccionario Castellano-Vasco*. Bilbo: El Mensajero del Corazón de Jesús 42. or.

Atal honetan bereziki oharra egin beharra dago. Ikusi ahal izanen denez, kasurik gehienetan perpaus mota bakoitzak adibideak ditu ondoan, baina zenbait ataletan perpaus motak aipatzen dira, adibiderik eman gabe. Osatzeke dagoen atala da.

8.1. PERPAUS KOORDINATUAK

8.1.1. Emendiozkoak (kopulatiboak)

- **Eta**

Arat biltzen dire zakukin atei bar dutenak *eta* an itten ttugu zakuk belarraz bete. (Lesaka)

Patzen tzu ontzi bat *ta* an biltzen da dena. (Arantza)

Bai, kiderra xetua du *ta* berriya in bar da. (Bera)

- **Eta gero**

Bai *ta gero* in ttezke orrela. (Arantza)

Artzen tzu ollaskua *ta gero* ateitzen tzio beitikan lepua or. (Arantza)

Ta gero izaiten tzen kordiona. (Etxalar)

- **Eta (bukaeran)**

Ni oroitzen naiz an bestatan *ta*, partidak itten zittuzten. (Bera)

Ama *ta* ongi? (Arantza)

- **Eta orduan**

Etzun ongi egitten *ta orduan* biekin patu *ta*... (Arantza)

- **Berriz ere**

Gustura eginezkeroko goguak gelditzen dire urrengun *berriz ere* egiteko. (Etxalar)

- **Ere**

Au *re* bi motor zarrekin iña da. (Arantza)

Gero baziren bertze klasik *ere* burdiñezkuak. (Bera)

Gero zakuk urratzen ttuztelikan *ere*. egotten gara an. (Lesaka)

- **Ere bai**

Ta gero dirua boltsan sartzeko *ere bai*. (Bera)

Bai, bai, ta bildots erdi bat *ere bai*. (Arantza)

Bai, faboxa *re bai*, ta ola dena. (Bera)

Ta bertzia andik yarrita *re bai*. (Bera)

Guri *re bai* ek e! (Lesaka)

- **Eta denbora berean**

Etorri ziren Ameriketatikan Mitxineko amerikanua *eta denbora berian* doña Maria Nesprias. (Bera)

- **Gainera**

Gañera zemat ta geigo pues idea geigo. (Igantzi)

Gañera oñaz ibilizkeroko besta girua agitzez politagua da. (Etxalar)

- **Ez ... bakarrik/bakarra**

Eta ez aldi bat *bakarra* ... ordun iru-lau aldi ateitzen ziren. (Lesaka)

- **Bederen**

Besta bertze batzuk *bederen* egimarko dugu. (Etxalar)

- **Gutienez/gutienean**

Emakumia gizonaz yauntzi ta *gutxinin* mutill aiña emakume. (Lesaka)

- **Behinik behin**

Polizi armada edo guardia asalto edo eztakit zer tzen, oitikan *benpe*. (Bera)

Alkate bezala *benpin*, ez. (Igantzi)

Oyek *benpin* iduitzen tzait agitz ongi. (Etxalar)

Bertzelako emendiozkoak:

- **Bai ere**

- **Baita ere**

8. JOSKERA

8.1. PERPAUS KOORDINATUAK

- Ere ez
- Bertzalde

8.1.2 Aurkaritzakoak (Adbertsatiboak)

- **Baina**
Usua eldu da goitigo *biñon* asitzen dire an beragoko batzuk oyu iten. (Etxalar)
Biño ezta egundaño agertu. (Bera)
Kentzen tzayon, *biño* etzun ongi egitten. (Arantza)
Ni nerez naiz Elarraldekoa, *biño* esposatun nitzen Sorora. (Bera)
Uañ kiderrikan gabe dago, *biñon* emen paratzen tzayo. (Bera)
- **Orain**
Gizon ttikia zen; *uañ* inddar aundikua ori bai. (Bera)
- **Halere**
Gizon lodiya zen, gizon azkarra; *alere* pillotan aitz ongi aitzen tzen e! (Bera)
- **Berriz**
Ola *berriz*, arara yuaten da. (Arantza)
Ta astiya zanezkero *berriz*, ze imar tzu? (Arantza)

Bertzelako emendiozkoak:

- Berriztik(an)
- Ordea
- Bitartean / Bizkitartean
- Dena dela / Nolanahi dela
- Beharrean
- Haatik
- Beti ere
- Berdin

8.1.3. Hautakariak (Disjuntiboak)

- **Nahiz**
Izaiten da bizkorki, *naiz* eizturi *naiz* bertze yende turista ere. (Etxalar)
- **(Baldin) bada ... (baldin) bada**
Etzen iñor ere preokupatzen deusengatikan, *baldin* bazen zarra edo *baldin* bazen ona. (Lesaka)
- **Bertze gainerakoan**
Izugarri polita da *bertze gañerakun* barrena. (Bera)
Kandelak irauten tzuen pixko bat, *biño bertze gañekun*, jeneralian zera, petroliua. (Bera)
- **Bertzela**
Bertzelaz saria beranduxko disparatuzkero usuak yo sarian ta bueltan ateitzen die. (Etxalar)

Bertzelako hautakariak:
- **Edo (iñoiz ez ala)**

8.1.4. Banatzaileak (Distributiboak)

- **Bata ... bertzea; (alde) batetik ... bertzetik; batean ... bertzean...**
Ferratzalliko lekun *batzuk* ta bertzin *bertzik*. (Lesaka)

Bertzelako banatzaileak:

- -(e)la ... -(e)la
- Nola ... hala
- Bai ... bai
- Edo ... edo

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

8.2.1. Baldintzazkoak

8.2.1.1. Jokatuak

- **Errealak**

Norbattere *balin bada* nai duna apuntatu libertate osua dauka. (Igantzi)
Emanen zizuten siñale bat portzikaso, gaizkirik itten *bazunun* edo. (Lesaka)

- **Irrealak**

Labrantzako gauzak nai *nittuke* ola paratu. Nai *nuke*, nai *nuke* billu batzuek. (Bera)
Ta gañera erranen *nuke* bertze pista bat geixago. (Etxalar)

- **Betiere + baldintza**

Betiere erri bazter onetan yendia baldin badago. (Etxalar)

- **Bertzela**

Bertzelaz saria beranduxko *disparatuzkero* usuak yo sarian ta bueltan ateitzen die.
(Etxalar)

Bertzelako baldintzazko jokatuak:

- **Iraganekoak**
- **Non (eta) -n**

8.2.1.2. Jokatu gabeak

- **Partizipioa + ezkerro**

Saria beranduxko *disparatuzkero* usuak yo sarian ta bueltan ateitzen dire. (Etxalar)
Harek barran *eramizkero* erotuk. (Lesaka)
Uañikan oso-osuk agertzen die... pixkot aitzurrin *asizkero* soruan. (Bera)
Denbora *izanezkero*, dentikan...; beiñ *jubilatuzkero* zerbattetan ari bar ta. (Arantza)
Nai *zanezkero* parrillakin itten dut. (Arantza)
Gañera oñaz *ibillizkero* besta girua agitez politagua da. (Etxalar)

- **Partizipioa + ta**

Ortik egunero *janta* aspertu itten zara. (Bera)

- **Aditz izena + -kotan (-koz, -koztan, -kozin, -zkero)**

Gaizki solas *ittekoz* obe da ez iñ. (Lesaka)
Traktoria *izattezkero* biar tzu pixkot prestatua belarra ta dena itteko. (Igantzi)

- **Aditz izena + -ra**

Jakin *izattera* enitzen joanen. (Bera)

8.2.2. Erlatibozkoak

- **-n + izena**

An *den* kanpoko makina ura bera ote xetzekua da. (Bera)
Beti gustorat gelditzen gara parte artzen *dugun guziyak*. (Etxalar)

- **-n + mugatzailea**

Beti zatten da norbattere erratten *dizuna* txorradan bat.(Arantza)
Lengo oitura zarra nik izautu *nuna* ttikitik. (Etxalar)
Or bada Tellegia erratten *diotena*. (Bera)
Ta izaiten tziren bi-iru pareja agertzen *tzirenak* karroza batian idiyakin ibiltzen *tzena*.
(Etxalar)

- **Bait-**

Eta gero gañian Casas Baratas erratten *baitiote*, an bazen bertze frontoi bat. (Bera)
Nik enitun izautu Gaztelun, itxi aundi bat *baita*, Bankun onduan. (Etxalar)

- **Galdetzailea + bait- + ere**

Itxi uri in tzunak, *nor baitzen ere*, etzun gusto aundirik. (Arantza)

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

- **Korrelazioa: galde izenordaina + erakuslea**

Zertan iduitzen zatten lan gaixtua, ura aisittu. (Arantza)

- **Partizipioa + -tako**

Tellegi edo labia *izandako* artan uñikan oso-osuk agertzen die. (Bera)

Ordun *adittutakuk*. (Bera)

- **Partizipioa + mugatzailea**

Jexuxek *eramana*, Ekitatibakuak. (Bera)

8.2.3. Kausazkoak

- **Bait-**

Kontrabando denbora yuan *baitzen* gu soldado giñelikan. (Bera)

Gero *ezpaigenuen...* argirik *ezpaitzen* orduan, ...argizariya ta petroleua. (Bera)

Gero bi anak yosi ola tamaño polit batian, zakuk zabalak zatten *baitire*. (Lesaka)

- **Aditza + eta**

Beñ jubilatuzkero zerbattetan ai bar *da ta*. (Arantza)

Begitzeko re ya ezin ikusiz asi *gara ta*. (Arantza)

Azinda aunitzentzat pikatu biar *tzen* aunitz *eta*. (Bera)

- **-lako(z)**

Ez giñun gose aundirik zatten, talu aunitz itten *zelakoz*, dudik gabe. (Arantza)

Urte txarrak die, *eztelakoz* (usorik). (Etxalar)

Zakuk yositzera yuaten gara betitikan ola yuan *garelakoz*. (Lesaka)

- **-la eta**

Gañera ikusi bar *dela eta*, irri batzuk egiteko manera emanen digu. (Etxalar)

- **-nez (gero)**

Torri *zarenezkero*, izu zerttere. (Bera)

- **Zer(ga)tik / zer(ga)tikan / zertaz / zertako / ze bait- / -n / eta / Ø**

Gure ttiki denborian ere goserik etzen, *zergatik* opilla zatten *zen* pillaka. (Bera)

Orixe nai gunun guk, *zertik* uri pizar batengatik *ezpaitzen* musikikan. (Bera)

Zertaz ni baserrian yayua naiz *ta*. (Bera)

Ezta yaus egitten al, *zertaz* okertua dago. (Bera)

Akaso orrengatik eldu da Etxalarrakoak kontzia karrozak ta gauzak, *zertaz* ondarrin besta da antzerki gisa. (Etxalar)

Unekin eztuzu iñon biarrikan, ze artzen tzu ollaskua goitik betti, burutik betti ta gero ateitzen tzio lepua. (Arantza)

- **Porke**

Porke usua eldu da goitigo. (Etxalar)

- **Nola + (bait) -n**

Nola ikusten *zten...* (Etxalar)

Eta ordun, *nola zen* berrogeita amar metro tunelian... (Bera)

Biño *nola den* malda batin... badu zilo bat. (Bera)

Nidua eiñ ta, *nola* geldittu *zen* betti tunel batian... (Bera)

Neune *nola* labrantzan sortua *naizen*, gustatzen tzait. (Bera)

Nola diren lenogoko gauzak, oyek badute eben baloria. (Bera)

Ordun *nola zen* kuadrilla guti...; gero *nola* kuadrilla aunditu *den...* (Etxalar)

Bertzelako kausazkoak:

- **-ki**
- **Aditz izena + agatik**
- **Eske**
- **Yaketa**

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

8.2.4. Denborazkoak

8.2.4.1. Aldiberekoak

- **Aditz jokatua + -n denboran**

Bai, istilluk ikusi ginttun, bai, gerra asi zen *denborian*. (Bera)

Ta sakarina asi zen *denborian*, bueno difentzia ikaragarriya zen. (Bera)

Ta duikabe zartu zen *denborin* or paratu zanen tzun. (Bera)

Or arri azpiyan egondu zen *denborian* zortzi egun zazpi eltxaurrekin... (Bera)

Lana egiten *dun denborin* ezin da besta egin. (Etxalar)

- **Aditz jokatua + -nean**

Ta yuan *tzenian* obispuk artu men tzun... (Bera)

Ni umia *nitzenin* urrengo egunin billutzen nun belarra dena. (Lesaka)

- **Eta orduan**

Txiki-txiki xetzen tzen *ta orduan* azindari ematen tzen. (Bera)

- **Izena + -aren buruan**

Egunan burun ze etzaigu pasatu gaur? (= *egunean zehar*) (Bera)

- **Partizipioa + bidenabar**

- **Aditz jokatua + -larik(an)** (hau ere maiz erabilia)

Ta ala ai *zielikan* bateri eskapatu zaion, barrenian *zielikan* ostatun, barrenin *zielikan* tirua eskautu zaion. (Bera)

Kontrabando denbora yuan baitzen gu soldado *giñelikan*. (Bera)

Ni mutiko koxkorra *nitzelikan* paratu zuen ori. (Bera)

Nik andik ematten *diotelikan* yuaten da gora, gora, gora. (Bera)

Gero zakuk urratzen *ttuztelikan* ere, an egotten gara. (Lesaka)

Biño sua *delik* lana fuerte imar da. (Etxalar)

Bertzia andik unat ta *neizulikan* gelditzen tzu emendikan. (Arantza)

- **Aditz izena + -arekin**

Lehen ikusitako **-nean**, **-n denboran** edo **-larik(an)**-ek duten erranahi berbera hartzen du, baina beti geroari egin behar dio erreferentzia, ez iraganari. Hortaz, *fruta erostearekin ordaintzen nuen* edo *ordaintzen dut* edo *ordainduko dut* erraten ahal dut, baina ez *fruta erostearekin ordaindu dut* edo *ordaindu nuen*.

Ori sasoya *akautzikin* erranen dut. (Etxalar)

- **Aditz izena + -arekin batean**

An ura guruztu *illuntzikin batean* ta andik... (Bera)

- **Izena nahiz aditz izena + -rakoan**

Kontrabandukun zielik, *aratakun* billa zuazilik ta eldu zielik. (Bera)

- **Partizipioa + ahala**

Erre ala yan zuxten gaztañak. (Bera)

Bertzelako denborazko aldiberekoak:

- **Aditz jokatua + -n guzietan**

- **Aditz jokatua + -n bakoitzean**

- **Aditz jokatua + -n aldiro**

- **Aditz jokatua (edo partizipioa)+ -n bitartean / bitartio**

8.2.4.2. Lehenagokoak

- **Partizipioa + baino lehen**

Zuk ikusi *biño lenogo* ikusi zattu berak bai! (Igantzi)

Soldado yuan *biño lenogotikan* egondu giñen urte pare batez do ola... (Bera)

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

- **Partizipioa + aitzin / aitzinetik(an) / aitzinean**

Emen reketikin ta ola yuaten baigiñen gu gerra denborian, soldado *yuan aintziñ*. (Bera)

Lesakako fabrika *asi antziñetikan* eun ta geyo yuaten tziren. (Arantza)

- **Aditz jokatua +-ne(ra)ko**

Ya gu *asi giñenko* baziren motosierrak. (Arantza)

Ta guk nai *gununko*, osea bestatako, egin tzuten. (Igantzi)

- **Aditz izena + -(ra)ko**

Muga pasatu ta *illuntzeko* urara, Bidasora. (Bera)

- **Partizipioa + orduko**

Gu alletu *orduko* an tziren denak esperun. (Lesaka)

8.2.4.3. Ondorengoak

- **Partizipioa edo aditz jokatua + bezala¹⁶**

Itxin sartzen *zaren bazala* afalduko dugu (Bera)

- **Partizipioa + eta berehala(xe)**

Erosi ta beila ondatu zaigu telebisiua. (Lesaka)

- **Partizipioa + (eta) ondotik**

Lurra *irauli eta ondotikan* orrekin eitten tzen. (Bera)

- **Partizipioa + (eta) gero**

Pikatu ta gero tregazakin dena txiki-txiki-txiki xetzen tzen. (Bera)

Eskola *akautu ta gero* asi bar du lanian. (Etxalar)

Iñautik *pasatu ta gero* afare bat ederra itten dugu. (Lesaka)

- **Noren + buruan**

Ta gero iru *illauten burun* bertze auzuri tokatzen tzaio. (Etxalar)

Bertzelako denborazko ondorengoak:

- **Aditz jokatua edo partizipioa + bezain agudo**

- **Partizipioa + eta segituan**

- **Partizipioa + orduko**

- **Partizipioa + (eta) ondoan**

- **Partizipioa + eta**

8.2.4.4. Noiztik

- **Aditz jokatua +-la**

Bos bat urte edo sei izan biar dire erosi *gunula*. (Bera)

- **Izena + -tik aitzina**

Amarrak *aldetik aitzinera*, ez. (Lesaka)

- **Adberbioa (edo partizipioa) + -tik / -z geroztik**

Eskolara *asizkeroztik* ez du nigarririk itten. (Bera)

Aritzen tziren bi illaute *lenogotik* prestatzen. (Lesaka)

Orduzkeroztik beti martxatzen du. (Etxalar)

- **Partizipioa + bada / badu + partizipioa**

Etorri bada etorri ez da isildu. (Arantza)

Bertzelako *noiztik* denborazkoak:

- **Aditz jokatua + -netik / -nez geroztik**

- **Adberbioa + -z gero**

16 Joannes Etxeberri Ziburukoak erabiltzen du zentzu honetan. *Manual devotioenezcoaren* 1.090 bertsoan honela dio: "Hitzaz eta gutaz berdin duc, herio cruela / gure ahoa hersten duc hi aguertu bezala"

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

8.2.4.5. Noiz arte

- **Aditz jokatua + -n arte / artio / bitarte / bitartean / bizkitartean / bitartio / bitartekoan...**

Kejutzen *etzaren bittarte* orrek ola segittuko du. (Lesaka)

- **Partzipioa + arte /artio arteino / bitarte / bitartean / bizkitartean / bitartio...¹⁷**

Zuk siesta *in bizkitartian* nik buelta bat emanen dut. (Etxalar)

Horrek lan ori *akautu bittartekun* buelta bat eman tzun. (Arantza)

8.2.4.6. Noizko

Astirtiko izaiten tzen ezkontza bat. (Etxalar)

8.2.5. Ondoriozkoak

Alborakuntzaren bidez egiten dira. Menderakuntza ez da erabiltzen.

- **Honen, horren, hain**
- **Hala, hainbertze, hainbertzeraino**
- **Honelako, horrelako, halako, hainbertzeko**

8.2.6. Helburuzkoak

- **Subjuntiboa**

Hagitz guti erabiltzen da

- **Aditz izena + ko**

Au illarra *berexteko* giñun eta ori artua *yorratzeko* zatten tzen. (Bera)

Urrengo egunin billutzen nun belarra dena beyari azpiyak *eitteko*. (Lesaka)

Bertzelako denborazko ondorengoak:

- **Aditz izena + ra**
- **Aditz izena + agatik**
- **Aditz izena + kotan**

8.2.7. Kontzesiboak

- **Nahiz (eta) + partzipioa edo aditz jokatua + -n**

Nai gununa in tzuten, *naiz ta* ondarko puntu arte an aittu *ziren*. (Igantzi)

In dire gauz geyenak, *naiz* eguldik aitz txarrak izan *diren*. (Igantzi)

Gustatzen tzait gauz oyek, *naiz eztuten* labrantzako abildaderik izandu. (Bera)

Naiz debekatua *izan* gu re dantzatzen giñen, *naiz* Garizuma *izan*. (Lesaka)

Gu ederki moldatzen giñen denak, *naiz* mutillak eta neskak agitz ongi pasatzen *giñun*. (Lesaka)

- **Partzipioa + ta ere**

Etzitziaten inportik izatten gutti *yuanta ere* eskolara. (Lesaka)

- **Aditz jokatua + la(rik) (ere)**

Ez dire ibiltzen al eskian, edoziñ adiñekuk *direla*, auzo ta baserritan. (Bera)

¹⁷ Holmer-ek *bittartingo* bildu zuela dio Arantzan; gaur ez dutela erabiltzen diote. Ana Maria Echaidek bertzalde, *bitartenko* bildu omen zuen herri honetan: *Oimbitartenko izan ttut bi auntza* (ik. Etxaide, 387. or.)

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

- **Bai, baina** (bukaeran)
Badut astia azkarki ta orrela, alfer samarra naiz *bai, biño*. (Bera)

Bertzelako kontzesiboak:

- **Partizipioa + agatik(an)**
- **Baldintzazkoak + ere**

8.2.8. Moduzkoak

- **Bezala, modu, gisa, klase, neurri...**
Igualtso, igualtso, lengo, lengo *klasian*, igualtso izatten da. (Lesaka)
Edoziñ *gisatan* ni ateiko naiz zure bidera. (Bera)
Lemizikua itten tzu nolapattere, al den *bazala* itten tzu. (Arantza)
Eta emanen tu bertze urtetan *bazala*, Ixakak. (Etxalar)
- **Baldintza hipotetikoak + bezala**
Eskeko pobria *balitz bizala* yaunzten zen. (Bera)
- **Honela(xe) (hola), horrela(xe), hala(xe)**
Pues Altzateko plaza *oltxen* tzen. (Bera)
- **Bere hala (bere hartan)**
Al den bazala itten tzu ta gero *beriala* utzi. (Arantza)
- **Aditz jokatua + -la**
Operatu ondotikan yaus *eztela* geldittu da. (Igantzi)
- **Partizipioa + ta**
Eta aldi ortik *begiratuta*, deziditu da. (Igantzi)
Dena sasiyak *artuta* zagon ta pixko bat moldatu ein dut. (Bera)

- **Partizipioa + (r)ik**
Eurek ere zerbaiten parte artu *naizik*, (karroa) ein tzuten. (Etxalar)
Batek biño bertzik alukeri aundigua *iñik* (ibiltzen ziren). (Lesaka)
- **Partizipioa + -z**
Soldado yuan biño lenogotikan egondu giñen akaso urte batez edo ola astin egun bat *pasatuz*. (Bera)
- **Partizipioa (edo izena edo gisakoa) + (e)an**
Arekin etzunun onez *onin* ere yaus kontsegittuko. (Bera)
- **Izena + ka**
Ekin segitzen dugu erriyan barna *bueltaka*. (Lesaka)

Bertzelako moduzkoak:

- **Partizipioa + a**
- **Partizipioa + gabe**
- **-aren arabera**

8.2.9. Konparaziozkoak

8.2.9.1. Maila konparazioa

a) Berdintasuna

- **Bezain**
- **Adinako**

b) Desberdintasuna

- **Baino ...ago**
Txurrero artu nun laguntzeko, nik *biño obekio* esplikatuko ziola. (Bera)

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

Batek *biño* bertzik alukeria *aundigua* iñik. (Lesaka)
 Uañ ni *biño zartxuguak* direnak ein tzuten ordun. (Etxalar)

- **...ago _____ ezen ez**
 Obe duzu berdura yan *ezen ez* aragia. (Bera)
- **Aldean**
 Aren *aldin* polita zen guk iñ genuna. (Igantzi)

b) Superlatiboa

- **Hagitz**
 Au *agitz* gauza berriya da. (Bera)
- **-en(a)**
 Kontrabandoko denbora yuan baitzen *aundina* benpe. (Bera)
- **Ahalik eta / ahal den / ahal duen _____ -en(a)**
 Eta bueno *alík eta obekina* in ta tira antziñera. (Igantzi)
 Pala *al den urrunena* bota biar da. (Etxalar)

8.2.9.2. Zenbatasunezko konparazioa

a) Berdintasuna

- **Adina / dina**
 Horrek eramin dun *aña* karko dut nik aisa. (Bera)
 Emakumia gizonaz yauntzi ta gutxinin mutill *aña* emakume. (Lesaka)
 Bagiñen dentako *diña* eta txandaka aritzen giñen. (Bera)
- **Noren /norentzat + dina**
 Ordukoz *beretako diña* irauzten tzun. (Bera)

Bertzelako moduzkoak:

- Adinbat
- Bezainbertze

b) Desberdintasuna

- **Baino gehiago / gutiago**
 Nik uste dut uso batek aunitz *geigo* sufritzen dula tirukin ill *biñon* ola. (Bera)

b) Superlatiboa

- **Ahalik eta / ahal den / ahal duen gehien / gutien**
 Bueno, elkarte orrek lana, *alík ta gutina*. (Etxalar)
- **Zenbat eta ...ago ____ orduan eta / hainbat eta / oraindik eta ...ago**
 Eta gañera *zenbat ta geigo*, pues idea *geigo*. (Igantzi)

Bertzelako moduzkoak:

- Gehien / gutien
- Korrelazioa
- Zenbatez ...ago ____ (orduan eta) ...ago
- ...ago eta ...ago

8.2.9.3. Modu konparazioa

a) Berdintasuna

- Gisa
- Bezala(xe)
- Bezalako

8. JOSKERA

8.2. MENDEKO PERPAUSAK

b) Korrelazioak

- Nola ___ bait... hala ___
- ___ bezala, hala ___

8.2.10. Osagarriak

8.2.10.1. Adierazpen osagarriak (konpletiboak)

a) Aditz jokatuak

- **-(e)la**
Oroitu biar da lenogo Praderenian egiten tzela antzerkia. (Etxalar)
- **-(e)n** (*uste izan, beldur izan* eta gisako aditzekin)
Uste dut goizin torri den. (Bera)
- **-(e)nik**
Hagitz guti erabiltzen da, normalean **-(e)la** erabiltzen baita ezezkoetan ere.
Uańikan ezin erran yausere egińen dela. (Igantzi)
Jakina, *uste izan* eta gisako aditzekin **-(e)nik** erabiltzen dela ezezkoetan.
- **Bait-**

b) Izenlagunak direnean

- **-(e)n**
- **-(e)lako**

c) Subjuntiboa

Eskaera edo erregua egiteko edo *esan, adierazi, debekatu, on izan, hobe izan, beharrezkoa izan, beldur izan, komeni izan...*aditzekin.

d) Aditz ezjokatua

- **-t(z)ea**
- **-t(z)eko**
- **t(z)en**
- **tu**

8.2.10.2. Galde-perpaus osagarriak (zehir galderak)

- **-(e)n**
Ikusi balimazte usua nola sartzen den... (Etxalar)
Gero eiń tzuten amabost bat metro do eztakit zer ttuen. (Bera)
Eztakit gero ze ińen duten. (Bera)
Bira nola tirako duen, kusten? (Bera)
- **Ea** partikula
- **Ote** partikula

9. LEKUKOAK

Bortziritako hizkera biltzen duen lan honetan aipatzen diren adibideak bertako herritarren ahoetatik hartuak dira. Hona hemen lekuko horien izen-abizenak, herriz herri:

Arantza

Joaquín Madariaga
 Pantaleon Errandonea
 Marixe Fagoaga
 Nikolas Telletxea
 Sokorro Almandoz
 Gabriel Maiz
 Fermin Larretxea
 Luis Madariaga
 Pepita Sorondo

Bera

Patxiku Martikorena
 Felipe Matxikote
 Joxe Lanz
 Esteban Etxebeste
 Juliana Arburua
 Urbano Errandonea
 Fernando Etxebeste
 Esteban Alzuguren
 Juanito Peña
 Salvador Elizondo
 Luisa Goikoetxea
 Lino Etxegarai
 Martin Artieda
 Fermin Etxegarai
 Luziano Errandonea

Etxalar

Juanito Ansalas
 Xanti Elizagoien
 Benantzio Elizagoien
 Josetxo Ariztegi
 Javier Indaburu
 Bruno Genua
 Jose Antonio Goienetxe
 Anuntxi Agesta
 Francisco Iparragirre
 Axun Maia
 Jose Angel Goienetxe
 Angela Irisarri
 Virgina Arburua
 Pedro Galarregi
 Benantzio Iparragirre

Igantzi

Ramón Retegi
 Agustin Antxordoki
 Ana Mari Zelaieta
 Aniceto Etxeberria
 Patxi Txoperena

Lesaka

Doroteo Apeztegia
 Felixia Etxabide
 Maddalen Garbisu
 Tina Iantzi
 Epifanio Etxeberria
 Jose Luis Etxegarai
 Dolores Albizu
 Manuela Iantzi
 Luis Olaetxea
 Jose Emilio Txoperena

10. BIBLIOGRAFIA

Patxi Iñigok Bortzirietako hizkera deskribatzeko erabilitako bibliografia:

ATXAGA, Bernardo (1991). *Behi euskaldun baten memoriak*. Arre: Pamiela.

ECHAIDE, Ana M^a (1989). *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-1967)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

ETXEBERRI, Joannes (Ziburukoa) (1627). *Manual devocionezcoa, edo ezperen, oren oro escuetan erabiltçeco liburutchoa*. Bordele.

HOLMER, Nils. M. (1964). *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*. Donostia: ASJU.

IDOATE, Carlos eta VILLANUEVA, J. Joaquín (1981). "[Unas ordenanzas de Vera en vascuence](#)". *Fontes Linguae Vasconum* 37: 275-281.

MUGICA, Plácido (1965). "Afijos vascos". *Diccionario Castellano-Vasco*. Bilbo: El Mensajero del Corazón de Jesús

SATRUSTEGI, Jesús M^a (1997). "[Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatuak](#)". *Fontes Linguae Vasconum* 74. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

ZUAZO, Koldo (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

Bortzirietako hizkerarekin lotutako bertzelako bibliografia:

CAMINO, Iñaki (arg.) (1998). [Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako agiriak: Iruñea, 1997ko azaroa \(24-28\)](#). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Euskaleria Irratia, Múgica, M. (1990). *Nafarroako euskaldunen mintzoak I*, Iruñea: Nafarroako Gobernu.

Euskaleria Irratia, Múgica, M. (1994). *Nafarroako euskaldunen mintzoak II*, Iruñea: Nafarroako Gobernu.

GAMINDE, I. (1985). [Aditza ipar goi nafarreraz](#), Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.

GAMINDE, I. (1990). "[Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoen](#)", *Fontes Linguae Vasconum*, 56. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

GAMINDE, I. (1993). "[Nafarroako nominalizazioen](#)". *Fontes Linguae Vasconum*, 62. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

GAMINDE, I. (1994). "[Nafarroako menperagailuen](#)". *Fontes Linguae Vasconum*, 66. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

GAMINDE, I. (1996). "[Lesakako azentu eta intonazioen](#)". *Fontes Linguae Vasconum*, 71. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

11. BIBLIOGRAFIA

HUALDE, Jose Ignacio (1991). *Basque Phonology*. Londres: Routledge.

HUALDE, José Ignacio (1997). *Euskararen azentuerak*. ASJUren gehigarriak-42. Donostia eta Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

IÑIGO, Patxi (2007). *Bortziritako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan*. . Euskera 1. 52. Liburukia (2. aldia). Bilbo: Euskaltzaindia

IÑIGO, Patxi (1980). *Bortziritako erakusleez*. Euskera, 26. Bilbo: Euskaltzaindia.

IÑIGO, Patxi, SALABERRI, Patxi eta ZUBIRI, Juan José (1995). *“-ki aditz atzizkiaren gainean”*. Fontes Linguae Vasconum, 69. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

TXILLARDEGI (1984). *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.

YRIZAR, Pedro (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*. Iruñea: Nafarroako Gobernu, Bilbo: Euskaltzaindia.

ZABALA, Antonio (1970). *Bidasoa aldeko bost bertsolari*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.

ZELAIETA, Edu (2004). *Bortzerrietako euskara herriz herri (ez)berdintasunetan barrena I*. Fontes Linguae Vasconum, 96. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

ZELAIETA, Edu (2005). *Bortzerrietako euskara herriz herri (ez)berdintasunetan barrena II*. Fontes Linguae Vasconum, 99. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

ZELAIETA, Edu (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernu, Hezkuntza Departamentua ; Bilbo: Euskaltzaindia.

ZUAZO, Koldo (1998). *“Euskalkiak gaur”*. Fontes Linguae Vasconum 78. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

ZUAZO, Koldo (2008). *Euskalkiak euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

ZUAZO, Koldo (2015). <http://euskalkiak.eus/>